

ttiipi-ttapa

296. zenbakia • 2001ko otsailak 22 • XXI. urtea

2001-2003 HIRURTEKO AZPIEGITURA PLANA

540 milioi gutiago gure herriendako

Nafarroako Gobernuak jakinarazi berri du 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planean diruz lagunduko dituen lanen berri. Nafarroa osoan 24.617 milioiko inbertsioa egingen da, azkenekoan baino 9.000 milioi gehiago. Dena den, horrek ez du eragin handirik izanen inguru honetako herrietan, azkenekoa baino 540 milioi guttiago jasoko baitira, hau da %35eko jautsiera.

Eskualde honetan jasoko diren 1.050 milioietatik

erdia baino gehiago Baztanera joanen dira. Bertze aldean dago Bortziriak, eskatutako aurrekontuetatik %7,5 bertzerik ez baita lortu. Diru-banaketa sistemarekin aspalditik dauden arrenkurak berriz ere plazaratu dira. Alkate batzuen ustez, diru-banaketaren sistema hau loteria bezalakoa da: «*Bonboan sartzen ditugu egin behar diren lanak eta ateratzen badira ongi*». Bertze batzuen ustez, ongi erabiliz gero sistema egokiena da, bai-

na zalantza dute ongi erabiltzen ote den.

Kontuak kontu, Europan, biztanle bakoitzak zergitan ordaintzen duenaren %14a bueltatzen zaie udalteei azpiegitura lanetarako, Euskadiko Autonomia Elkartearen %8 eta Nafarroan %4 eskas. Beraz, Nafarroako udalek, orokorrean, hagitz independentzia gutti dute beharrezko lanei ekiteko eta, hurrengo hiru urteetan, inguru honetakoek guttiago izanen dute oraindik.

15 3-5

6 Gaurkotasuneko Gaia: Hirurteko Azpiegitura Plana

Nafarroako Gobernuak dirua banatzeko erabiltzen duen sistema ez dela egokia uste dute eskualdeko alkate gehienek. Doneztebe, Leitza eta Lesakakoen iritzia bildu dugu.


9 Euskara: Euskara guztion eskubidea manifestazioa larunbatean Iruñean

Nafarroako Gobernuak euskararen erabilera arautzeko atera duen dekretuak hautsak harrotu ditu. Larunbatean manifestazioa egingen da Iruñean.

25 Kirola: Euskal Herriko sokatira txapelketa

Lehendabiziko tiraldietan indartsu agertu dira Areso eta Lesakako Beti Gazte taldeak.

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



Hirurteko Planean Nafarroako Gobernuak dirua banatzeko duen sistemarekin ez daude konforme eskualdeko alkate gehienak. Batzuen ustez, loteria hutsa da.

BORTZIRIETAN

IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



ARANTZA: Herri Eskola
☎ 948 634 104

- ✓ Gure herriko hizkuntza eta kultura bultzatuz
- ✓ Dohainik
- ✓ Jantoki eta garraio zerbitzuekin



BERA: Ricardo Baroja E.P.
☎ 948 625 019



IGANTZI: Herri Eskola
☎ 948 637 829

- ✓ Integratzailea
- ✓ Teknologi berriez baliatuta
- ✓ Haur eta Lehen Hezkuntza herri eskoletan



ETXALAR: Landagain E.P.
☎ 948 635 215



LESAKA: Irain E.P.
☎ 948 638 006

- ✓ DBH, Batxilergoak eta LH bertako institutuan
- ✓ Lesaka eta Beran 2 urteko umeentzako matrikula irekia



TOKI-ONA Institutua
☎ 948 625 000

TXIKIAK HEZITUZ HAUNDITU

Izen ematea: otsailaren 26tik martxoaren 9ra



2001-03 Hirurteko Plana

Aitzinekoan baino 540 milioi gutiago gure eskualdean

**Nafarroako
Gobernuak jakinarazi
berri du 2001-03
Hirurteko Leku
Azpiegitura
plangintzaren
barnean banatuko
dituen diruen berri.
Eskualdeari
dagokionez
1.050.105.000
pezetako inbertsioak
onartu dira, 1997-99
aitzineko Planean
baino 540 milioi
terdi gutiago.
Nafarroa osoan
berriz, 24.617
milioiko inbertsioa
eginen da, azken
Planean 15.722
milioikoa bertzerik
ez zenean. Beraz,
Nafarroa osoan
9.000 milioi gehiago
banatu baldin badira
ere, inguru honetako
udal eta
mankomunitateek
%35 gutiago izanen
dute azpiegitura
lanetan inbertitzeko.**

TESTUA: AITOR AROTZENA
ARGAZKIAK: ARTXIBOA

beti gertatzen den bezala, Nafarroako Gobernuak Hirurteko Azpiegitura Plangintzan onartutako lanek era guzietako balorazioak sortu dituzte inguruko udal ordezkarien artean: Badaude arras kontent daudenak, eskatutako lan gehienek Iruñetik laguntza jaso dutelako; hain kontent ez daudenak eta baita erabat haserre daudenak ere topatzen ahal dira, eskatutako lanetatik pizar batzuk bakarrik onartu direlako edo bakar bat ere ez.

Kontuan kontu datu bat azpimarratzen ahal da. 2001-2003 Planean, 1997-99 Planarekin konparatuz, %64 diru gehiago banatu du Nafarroako Gobernuak, baina gure eskualdeari %35 guttiago egokitu zaio. Datu horrek arrenkura sortu du inguru honetako alkate batzuetan, herrietako premiak baino gehiago kriterio politikoak kontuan hartu direla uste dutelako. Josu Goia Berako alkatearen us-

tez, «inguru hau beti zigortzen dute diru banaketan. Berako Udaletxeok lokalak hirugarren mundukoak dira, itxasarekin, kalefakzioirik gabe, komuna bakarrekin eta ez dugu laguntzarik jaso. Plaza ere hagitz hondatua dago eta auzoetako argiak behar beharrezkoak dira. Horretatik deus ez digute eman. Nafarroako Gobernuak bada dirua bide-seinaleak erdara hutsen paratzeko, baina ez guri laguntzeko». Beran bezalaxe, bertze herri gehienetan lan aunitz egiteko dirulaguntzarik gabe gelditu dira.

Diru-banaketa sistema aldatu behar dela uste dute alkate gehienek

Miguel Mari Irigoien, Etxalarako alkatearen ustez, diru-banaketa sistema aldatu behar litzateke. «herri bakoitzak dituen biztanle kopurua kontuan hartuz».

Iritzi beretsukoa da Josu Goia: «Europar, biztanle bakoitzak zergetan ordaintzen duenaren %14 bueltatzen zaie udaletxeel azpiegitura lanetarako, Euskadiko Autonomi Elkartean %8 eta Nafarroan %4 bakarrik eta poliki-poliki jausten ari da. Udalok independentzia galtzen ari gara. Sistema aldatzen ez bada miseria gorrian segituko dugu eta lanak laguntzarik gabe egin behar ditugu, baina Herriko Etxeen posibilitadeak ez dira haundiak».

Donezteben ere laguntzarik gabe ekinen diote Osasun Zentroaren urbanizazio lana. «Nahitanahiez egin beharreko lana da eta aurrekontu txikioa denez, geronek eginen dugu» dio Miguel San Miguel alkateak. Halere, oraingo planean ez zuen proiektu aunitz sartu Udalak, 1993tik honat 505 milioi jaso baititu Azpiegitura planetan. San Miguelen ustez ere sistema aldatu egin behar litzateke: «Aitzinetik jakin lanak egiteko zenbat diru daukagun eta, horren arabera, urtero-urtero planifikazioa egin. Bertzenaz, loteria bezalakoa da hau. Bonboan lanak sartu eta zirea ateratzen bada, ederki!».

Inguru honi dagokion dirutik, erdia baino dextente gehiago Baztanek jaso du, 650 milioi. Biztanle kopuru handiagoa duen Bortzirietan, al-

SARTU DIREN LANAK

ARANO	1.000 litroko zaborontziak (Goizuetarekin)	350.000 pta
	Saro auzoko ur-garbi eta zikinaren sareak berritzea	11.181.000 pta
BAZTAN	Egozpeko zabortegia istea	5.000.000 pta
	Zaborra biltzeko kamioia, lumarekin	23.000.000 pta
	Zaborra bildu eta banatzeko lekua (Puntu garbia)	12.000.000 pta
	Orenoz Mogairiko bide-adarra	9.000.000 pta
	Elbeteko ur-garbi eta zikinaren sareak berritzea	14.269.000 pta
	Iruritako ur-garbi eta zikinaren sareak berritzea	34.247.000 pta
	Lekarozko Uhartu, Obarriz eta Arrazkaran auzoetako ur-garbi eta zikinaren sareak	53.010.000 pta
	Urruska aldeko elektrifikazioa	6.384.000 pta
	Gartzaingo argiteria	2.528.000 pta
	Elbeteko karriken zolaberritzea	15.708.000 pta
BERA	Aria (Elizondo), Amalur, Erratzuko ur-garbi eta zikinaren sareak berritzea	212.244.000 pta
	Aria (Elizondo), Amalur, Erratzuko karriken zolaberritzea	170.813.000 pta
	Arizkun, Elizondo, Lekaroz, Irurita, Arrainoz eta Berrostako bideak	91.691.000 pta
	Suspeltiki eta Dornakoko bideak	23.000.000 pta
	Kanposantzuaren haunditzea	28.628.000 pta
	Ur-bornidura sarea	17.500.000 pta
	Uxarrea auzoko elektrifikazioa	9.613.000 pta
	Azkarraga auzoko saneamendu sarearen berritzea	12.392.000 pta
	Azkarraga auzoko karriken zolaberritzea	19.948.000 pta
	Kanposantzuaren haunditzea	5.593.000 pta
DONEZTEBE	Kanposantzuaren drenajea	1.682.000 pta
	Kanposantzuaren haunditzea	5.593.000 pta
ETXALAR	Kanposantzuaren drenajea	1.682.000 pta
EZKURRA	Baserrietako bideak moldatzea	12.500.000 pta
	Kanposantzuaren haunditzea	3.500.000 pta
GOIZUETA	1.000 litroko zaborontziak (Aranorekin)	350.000 pta
ITUREN	Ametziako bidearen lehenbiziko fasea	16.735.000 pta
	Kanposantzuaren haunditzea	6.507.000 pta
LEGASA	Herriguneko ur-garbi eta zikinaren sareak berritzea	18.941.000 pta
	Herriguneko zolaberritzea	28.820.000 pta
LEITZA	1.000 litroko zaborontziak (Larraunekin)	3.500.000 pta
	Papera biltzeko edukiontzia (Larraunekin)	1.750.000 pta
	Mandaziainberdako zabortegia istea (Larraunekin)	2.500.000 pta
	Leitzaran errekan zubia (Industrialderako sarbidea)	35.616.000 pta
OITZ	Tentzio auzoko argiadar sarearen berritzea	2.100.000 pta
URDZUBI	Larraista, Iribere, Telleria eta Leorlas inguruko elektrifikazioa	88.824.000 pta
	Kanposantzuaren haunditzea	4.026.000 pta
ZUBIETA	Kanposantzuaren haunditzea	4.026.000 pta
BORTZIRIETAKO MANKOMUNITATEA	Zaborra bildu eta banatzeko lekua (Puntu garbia)	12.000.000 pta
	Zaborra biltzeko kamioia	21.000.000 pta
	1.000 litroko zaborontziak	3.675.000 pta
	Papera biltzeko edukiontzia	4.230.000 pta
MALERREKAKO MANKOMUNITATEA	Papera biltzeko edukiontzia	4.050.000 pta
	GUZTIRA ONARTUTAKOAK	1.050.105.000 pta



Ur garbi eta zikinaren sareak berritu eta, ondotik, zolaberritzea dira Nafarroako Gobernuak onartutako lan aunitz.

SARTU EZ DIREN LANAK

ARANO	Herriko Etxea moldatzea	18.327.000 pta
	Kanposantua handitzea	24.920.000 pta
ARANTZA	Herriko Etzako lehen solairua moldatu eta teilatua berritzea	34.977.000 pta ¹⁾
	Baserrietako bideak moldatzea	24.720.000 pta
ARESO	Herriko karriken zolaberritzea	9.911.000 pta
	Filipebarba eta Iratxei arteko pista moldatu	16.000.000 pta
	Argiteri publikoak hobetu	2.700.000 pta
	Herriko Etzako leihoak eta leihtailak aldatu	2.300.000 pta
	Baserrietan argiak jarri	30.000.000 pta
BAZTAN	Labederon eta inguru txakundu	4.800.000 pta
	Elizondoko Herriko Etxea moldatzea	
BEINTZA-LABAIEN	Azpilkueta, Almandor, Ziga, Irurita eta Arrainzoko kanposainduak	
	Herri guzietan argi batzuk paratzea	
BERA	Karriak zolaberritzea	55.435.000 pta
	Egeburuko bidea zolaberritzea	32.177.000 pta
BERTIZARANA	Herriko Etzaren moldatze lanak	70.000.000 pta
	Herriko Etzako plaza moldatzea	15.000.000 pta
	Itzea karrikeren moldatzea	3.000.000 pta
	Ugalzubi karrika moldatzea	2.500.000 pta
	Legia karrika moldatzea	4.000.000 pta
	Zubixabal zubia moldatzea	1.000.000 pta
	San Migel zubiko bidea	2.000.000 pta
	Uxano, Sospela, Kanle, Ihardin eta Garaitarretako argi publikoak	12.000.000 pta
	Legasan espaloia egitea	8.503.000 pta
	Legasan espaloia egitea	1.233.000 pta
DONAMARIA	Warbarte eta Legasako saneamendu lanak	
	Elizako eta Agerreko karriak zolaberritzea	13.716.000 pta
DONEZTEDE	Gazteluko kanposantuko bidea eta Pagoleko bide gurutzaraino zolaberritzea	27.100.000 pta
	Osasun Zentroko urbanizazio lanak	4.000.000 pta
ELGORRIAGA	Donamariako urpegiaren elektrifikazioa	5.000.000 pta
	Balnearioko bide bat egitea	50.000.000 pta
ERATSON	Herrian zolaberritze lanak eta bi bide orngidatatu	16.000.000 pta
	Asura baserrira argia eramatea	3.500.000 pta
ETXALAR	Herriko karriak zolaberritze lanak	20.000.000 pta
	Aparkaleku berria zolaberritze lanak	4.500.000 pta
GOIZUETA	Udaletxea moldatzea	38.717.000 pta
	Baserrietako bideak moldatzea	22.600.000 pta
	Argiteri publikoak	6.649.000 pta
	Zolaberritze lanak	10.438.000 pta
IGANTZI	Herriko Etze ondoan aparkalekua egitea	6.929.000 pta
	Eskolazhar etxean udal bulegoak eta artxiboa egitea	28.526.000 pta
	Iturri berria hartu eta ur-zikinaren sarea berria	100.663.000 pta
	Baserrietako bideak moldatu	47.868.000 pta
ITUREN	Aurtizko transformazio zentrua lekuz aldatzea	6.380.000 pta
	Erreserbako transformadorea erosten	2.146.000 pta
	Lasagako argindar sarea konpontzea	1.856.000 pta
	Aurtizko ur-garbi eta zikinaren sareak	41.864.000 pta
	Aurtizko zolaberritze lanak	77.904.000 pta
	Kontsejo karrikako ur-garbi eta zikinaren sareak	31.260.000 pta
	Kontsejo karrikako zolaberritze lanak	22.259.000 pta
	Herriko bi karriketako ur-garbi eta zikinaren sareak	4.178.000 pta
	Herriko bi karriketako zolaberritze lanak	4.238.000 pta
	Patsi Arrazola kaleko urbanizazioa, ur-garbi eta zikinaren sareak	70.000.000 pta
Patsi Arrazola kaleko zolaberritze lanak	53.000.000 pta	
LEITZA	Sokulu azoko bidea moldatzea	19.500.000 pta
	Herrigunean argi berriak paratzea	41.315.000 pta
	Herrigunea zolaberritzea	194.351.000 pta
	Nabar azoko bidearen zati bat moldatzea	10.356.000 pta
LESACA	Irtzeldea azoko bideak moldatzea	217.649.000 pta
	Otxango azoko hegoaldeko saneamendua	82.287.000 pta
	Ur zikinaren sarea hiru lekutan berritzea	205.865.000 pta
	Herrian zolaberritze lanak egitea	2.000.000 pta
SALDIAS	Saldias eta Labaiengo Urrutina inguruko ur-hornidura sarea	75.000.000 pta
	Baserrietako bideak moldatzea	24.747.000 pta
URDAZUBI	Alkerdi eta Telleria azoetako saneamendu sarea	53.290.000 pta
	Herriko Etzaren teilatua moldatu eta kalefakzioa jartzea	
	eta lokal bat zerbitzu publikoak eskaintzeko moldatzea	13.420.000 pta
	Argiteria moldatu	26.274.000 pta
URROTZ	Iturburuetik Maiteasarako karrika zolaberritzea	7.253.000 pta
	Herriko ur-garbi eta zikinaren sarea berritzea	23.561.000 pta
ZUBIETA	Herriko zolaberritze lanak	24.978.000 pta
	Baserrietako bideak zolaberritzea	35.601.000 pta
	Ibarreneko bidea zolaberritzea	3.653.000 pta
	Hualdea etxea berria eta museoa egitea	34.493.000 pta
ZUGARRAMURDI	Errotan aparkalekua egitea	1.725.000 pta
	Bide baten zolaberritzea	12.563.000 pta
	Herriguneako argiteria	5.664.000 pta
	Saneamendu kolektoreak eta ur-zikinak ateratzeko bomba	38.857.000 pta

¹⁾ Arantzako Herriko Etzaren teilatua berritzea 2000. urteko Planean sartua da.

diz, 94 milioi bertzerik ez dira jaso. Urdazubik bakarrik jaso duena baino 5 milioi eskas gehiago. Nafarroa osoan eskutatako hiru lanetik bateri bakarrik eman omen zaito laguntza. Bortzirietan, lanen %7,5ak bakar-bakarrik jaso du dirulaguntza.

Lesakak, errate baterako, 759 milioi pezetako inbertsioak eskatu zituen eta ez du pezetarik jasoko. Jose Luis Etxegarai alkateak azalpenak eskatu dizkio Nafarroako Gobernuari, Aitzineko Planean diru aunitz jaso zuela -eskutatako lan guztiak onartu baitziren- eta herria ongi hornitua dagoela izan da Iruñetik jaso den erantzuna. Dena den, Etxegaraien ustez, «sistema ongi erabiliz gero, justuena da: biztanle kopurua baloratzen dute, baita diseminazioa (non bizi den jendea), ondare ekonomikoa eta aitzineko urteetan herriak izan dituen laguntzak ere. Datu horiek denak ordenagailuan sartu eta emaitza xuxen-xuxen emanen luke, baina ordenagailuan sartzen diren datuak maneiatuak izaten ahal dira. Horren beldurra dut».

Diru banaketa sistemaz gain, bertzelako arrenkurarik ere badute gure herrietan. Iturenen, adibidez, eskutatako 214 milioietatik 23 bertzerik ez dituzte eman. Baina, gainera, Ameziako bidearen moldaketan lehen faserako 16 milioiak 2003. urtean emanen ditu Nafarroako Gobernuak, lan hori premiazkoa zela behin eta berriz adierazi arren. Iturengo Udalak bilera egitea eskatu dio Leku Administraziooko zuzendariari, arazoa moldatzeko.

Ez da aldaketa handirik izanen, baina zerbait bai

Hirurteko Azpiegitura Planaren berri Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu arte ez da behin betirako onartuko, baina normalean hagitz aldaketa gutti izaten dira. Dena den, beti bada aukeraren bat. Jose Luis Etxegarai, Lesakako alkateak dioenez, «plan honetan %10 oraindik partitu gabe gelditu da eta ez gara geldirik egonen. Herri batzuk lortutako lanak ez dituzte egiten eta ordeko lanak sartzen dituzte orduan». Beraz, Iruñera begira segitu beharko dute lanek beraien lanek ekiteko. ■

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88
Faxa: (+34) 948 63 12 91
Internet:
<http://www.topagunea.com/ttapi-ttapa>
e-mail:
ttapi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.
Presidentea: Pello Apeztebea.
Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.
Zuzendaria: Aitor Arotzena.
Publizitatea: Kulturkari, S.L.
Administratzailea: Amaia Goia.
Erredakzioa: Aitor Arotzena, Asier Gogortza.
Berriemakalariak: Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Pabí Otxandorena, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Lorena Galarregi, Pablo Mendiburu, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Elixabet Iturria, Garbifne Maiz, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arozena, Asier Gogortza.
Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Belarra...
Inprimategia: Gertu.
Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzinetako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkarteak...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria 2.200 Pta.
Ipar Euskal Herria 160 Libera
Europa 4.000 Pta.
Amerika 16.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Hirurteko Azpiegitura Plana

Sistema aldatu beharko litzateke, hau loteria bezalakoa da-eta



Miguel SAN MIGUEL
Donosteko alkatea

Zona honetara diru gutti xamar ailegatu da. Diru gehiago partitu da eta araberan, honat guttiago ailegatu da. Sistema hau aldatu egin beharko litzateke edo bertze gauzaren bat egin, inguru hau oraingoan kastigatua gelditu baita. Oraingoan ez genuen lan aunitz sartu, baina bakarrik kanposantuaren haunditzea onartu digute. Bertze lanak kostu ttikikoak direnez, ehuneko ehuneko gure gain hartuko ditugu. Nafarroako Gobernuak erratan du baremo bat ezarria duela eta gauzak garbiak direla. Baina gero ikusten duzu Nafarroa osoan gehiago banatu arren, inguru honetara guttiago ailegatzen dela eta horrek txokatzten du. Guk ez dugu keizteko arrazoirik, azken urteetan diru dexente jaso dugulako, baina oraingoan gutti ailegatu da eta jendea kexu egonen da, arrazoiarekin gainera. Bertze banaketa sistema bat aztertuz beharko litzateke, hau loteria bezalakoa delako. Udaletxe guztiak bonboan sartzen ditugu egin beharreko lanak eta gero ateratzen baldin bada ongi, eta bertzenaz hortxe gelditzen da. Aitzinetik jakin beharko genuke zenbat diru daukagun.

Legea gaizki dago eta lanak egiteko diru gutxi ailegatzen da udaletara



Tomas AZPROZ
Leizako alkatea

Nafarroako Gobernuak azpiegitura lanetarako diru partituzko duen legea desastre hutsa iruditzen zait. Beti esaten dutenez, lan asko eskatuz gero gutxi emateko arriskua dago. Udal askotan eskatzeagatik eskatzen dela iruditzen zait, egitan beharrezkoa izan edo ez, ez du inporta. Horregatik, oraingoan Leitzatik egitan premiazkoak ziren lanak sartu ditugu, gehiago esperatu ezin zutenak. Zaborrarekin lotutako obra txiki batzuetaz aparte, industrialdera joateko zubia bakarrik onartu digute. Honela, Pabí Arrazolako saneamendua eta ur-hornidura sareak eta ondoren egiten den zolaberritzea (123 milioi) ezin izanen dugu egin, ezta Sakuluko bidea ere (19 milioi terdi). Gainera, herriok oso autonomia txikia dugu, iruñetik etortzen diren laguntzen menpe gaude eta ezinezkoa izanen da gure kabuz lan hauek egitea. Mendialdeko herriok diru gutxiago jaso dugu, baina ez dakit horrek zigor politikoa izan dela esan nahi duen edo ez. Kontua da azpiegitura lanak egiteko oso diru gutxi ailegatzen zaiela Herriko Etxei Nafarroan eta hori aldatu beharko litzateke.

Plan hau, ongi erabiliz gero, banaketa sistema justuena da



Jose Luis ETXEGARAI
Lesakako alkatea

Balorazio hagitz onik ezin dugu egin, aurtengoan ez baitugu suertirik izan. Inguru herri honetako gehienek ere hagitz gutti jaso dute, Baztan ez gainerakoak eta guk deus ere ez. Programa honetatik kanpo ere baditugu bertze proiektu batzuk eta horrek ez digu lagundu. Gobernuari aunitz eskatua genion, eta aitzineko planean aunitz lortua ere bai. Hori hartu dute kontuan balorazioa egiterakoan eta puntuazioa jautsi egin digu. Teknikoki puntuaziorik altuena eman digute, hamarra, eta horregatik sartuko ginen ilusioa bagenuen. Baina Lesakako egoera nahiko ona dela erran digute eta egoten ahal garela oraindik pixko bat karrikak asfaltatu gabe edo oraingo argiek. Plan honetatik kanpo gelditu gara, baina Gobernuak baditu plan gehiago eta horietan zerbait lortzen saiatuko gara. Herrien arteko kompetentzia gero eta handiago da plan hauetan sartzeko. Alkate eta zinegotziek gero eta esperientzia handiagoa dugu Nafarroako Gobernuarekiko tratuari, baina hori alde guzietan, ongi erabiliz gero, izaten ahal den sistemarik justuena da banaketa modu hau.



ttipi-ttapa fundazioak
Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:
• Astlehenerdik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortzaleetan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bitria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:
ARTEKARI S.L., ☎ 948133328-133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitortpenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

CAN oraindik ez da Nafarroako Aurrezki Kutxa

Hamaborts urte pasa dire nere lehenbiziko nomina "Caja de Ahorros de Navarra" n jarri nuenetik, inozoki uste bainuen CAN nafarroako gizaratearen zerbitzura zegoela.

Hamaborts urtez diru transakzio guzietan zuzentzen duzun kuban egin ditut, gaur arte.

Duela zortzi eta lau urte bezalaxe, zu gana zuzentzen natzaizu eskaera bera egiteko, hau da; kubak eta bezero honek elkarrekin ditugun hartuemanak eskuaraz izen daitezina dudala. Alde batetik, uste dut bezero naitzen eina eskubide hoi daukadala eta bertetik CAN entitate publiko eta nafarra den bezalaxe dagoela gurea den hizkuntza normaltasunez erabiltzera.

Bezero honek leialtasune eta errespetue erakutsi datzue, iruskerian begirune eta errespetu eza eskuratu ditu, zintotasunaren truk arrokerie eta iraina,-tolerantzia erakutsi dudala ertera ez naiz ausartzen, birtute hoi kubak honen presidentearna eta bere inguruko ondarea baita -.

Kubak bezeroen iradokizunendako jarrita dauken buzoia, marketin hutse dela ikusi dut.

Azken boladan karrikatutako berriek erakutsi daute kubako zenbait etekin, bertze diru publikoekin batera 1.000.000.000 pza-, heletasunaren gaitza sendatzeko ibiliko dela. Bertalde ulergarria da CAN-ek eskuara gehiago ez erabiltzea, gaitz kutsekorra bihurtzen ari baita.

Akitzeko, erran behar dut Elizondoko bulegoko langileek, beti zuzen eta begirunez tratatu nautela, enpresaren miltzurkeria beraiek konponduz aunitzetan. Bertze aukerarik uzten ez

datazunez, jakinarazten datzut kubax utziko dudala, ez baitut zuen miltzurkeriaren konplize bihurtu nahi. Saiatuko naiz errespetuz tratatuko nauten bertze kubax bat biletzen, azken finean errespetu kontue baita dena.

Mikel Iruarte Antxiorena

Euskara dekretua Nafarroan

Berako Toki Ona B.H.I.ko klastroak nahi du, batetik, bere kezka adierazi Foru Komunitatean garatzeko asmoa dagoen hizkuntz politikaz azkenengo hilabeteetan indarrean jarritako erabakiak direla-eta, bereziki Nafarroako Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretua dela-eta, eta bestetik, ezagutzera eman aipatu gaiari buruzko honako ohar eta gogoeta hauek:

1. Ez dira kontuan hartzen 18/1986 Foru Legearen ezinbesteko helbururik gehienak; honien artean gogoangariak dira euskara jakin eta erabiltzeko heritarrek duten eskubidea babestea eta euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea.

2. 135/1994 Foru Dekretuaren helburu nagusietako gehienak ahanzi dira; horien artean azpimarragarria da heritarrek beren hizkuntz eskubideak erabil dezaten administrazio-zirkuito elebidunak ezartzeko behar hainbat langile prestatzeari dagokiona.

3. Bizki jokatzen da Espainiar Konstituzioaren 3.3. artikularen aurka, zeinak dioen Espainiako hizkuntz modalitateen aberastasuna ondare kulturala dela eta beren beregi errespetatua eta babestua behar duela izan.

4. Arestian esandakoaren

haritik, erants daiteke sentsibilitatearen orituriko kultur gehiketaz jardunik dela ondua, eta ez kenketaz ariturik. Nola Axular hala Cervantes, biak dira nafarren kultur ondarearen osagai. Eta baiezpaten horrek indar bera du aipaturiko autoren hurrenkera aldatuta ere. Cervantes eta Axular ez ezik, Shakespeare, Descartes, Locke, Einstein, Heidegger, Joyce... ere bai baitira nafarren kultur ondarearen osagai. Geroago eta nabarmenago antzematen da gaur egun hori Europa osatzen duen kultur aniztasuna eta aberastasuna gogoan hartzen duen sentsibilitate garatu ahal. Esan gabe doa baduela horrekin zerikusirik Europako Kontseiluak 2001. urtea Hizkuntzen Urte Europarra izendatu izanak.

5. Euskara, lingua navarro-rum-a, Mendebaldeko Europan bizirik dirauen hizkuntzarik zaharrena, bada, nafar guztien kultur ondarea da eta, halatsu, baita europar guztiena ere.

6. Ezin ahanzi daiteke gatazkak ez direla hizkuntzen artean gertatzen, baizik eta hiztunen artean, baldin eta, jakina, horiek nahi izanez gero. Hizkuntza bat salerosketarako trukagaitzat hartzen delarik, funtsezko eskubideak erazteraino irits daiteke, egi erdian arabera jokatuz, eta jakina da egi erdiak gerez oso bilakatzen direla, eta mingarriak izan ohi direla, gainera.

Manikeismoan oinarriturik ez da erraza jarrera anizkuna izatea, zeina beharrezkoa den norberaren kulturaren baitan eta, halaber, kulturen artean elkarriketa burutu ahal izateko.

7. Ohar eta gogoeta hauek Toki Ona B.H.I.ko klastroak bere hezkuntza-eginkizuna erantzukizunez beteitzeko hartua duen konpromisoaren emaitza dira. Eginkizun hori ikasleriaren

kultur eta, beraz, giza sentsibilitatearen garapenaren aldeko zerbitzu publikotzat du aditua; hortaz, guburuenak edo herrak eraginaz beste, aldarre bakoitzean besteekiko begiruneaz gogobernirik saiatzen da berre lan hori burutzen.

Berako Toki Ona B.H.I. Klastroa

Zubitako moztorra zakil erakusle horri

Tiki tikiti bizi izan ditut inauterak nere itunetan, tiki tikiti ezagutu ditut nere herriko atarian zubitarrak urtero erakusten duten ipurdia eta gotatze zahar gainean larru joka ari ziren moztorra hoiak. Gaur arte ohiturazko zerbitzu izan da, normala, ikuskizunaren bertze zati bat. Gaur ordea, (astelehena zubitarrak etorri diren eguna) gaizki sentitu naiz, nazkatua eta barrenra sutan jarri zait. Hantxe nengoen ni moztorra, denen tartean, eta hantxe ikusi zaitut zu bortzatzale iguingarri baten patera egiten, baina pasatu zara eta hori jakinerazi nahi dizut. Inauterietan bakoitzak nahi duena egiten ahal du baina behinereaz norbaiten gogoaren kontra; zuk azpian hartu duzun neska horrek negar egin du, eta karresi, eta gaizki pasa du, eta, aski da! Bortzaketa hori ez da grazioso izan!

Jendeak inauterietan moztortzen garenean barrenean «ezkutuan» duguna ateratzen omen dugu; hori hola bada, eta nik uste gehienetan horrela dela, zu hagitz arriskutsua zara. Nonbait beharra makalan zaude, hori erakutsi duzu gaur eta zera erran nahi nizuke, emaitza zure zakil era-

bitsu horri behar duena, urte bat osoa daukazu aintzinean horretarako, eta heldu den urtean lasaiago ibiliko gara zu zabilzan inguruan eta gehien bat neskak. Hobeki zaude Roldan edo Fidel Castoren papera egiten, horrela sikiera ez zaizu nabaritzen urte guztian barrenra eramaten duzun moztorra gaizto hori.

Inauterak matte eta bizi dituen neska itundar bat.

Goizuetako Cajanavarra

Nafarroako Kubak Goizuetan duen sukurtsalean orain dela aste batzuk paratu dituzte kartel argidun berriak. Bat Kale Nagusira ematen duen fatxadan eta bestea Santa Maria kale aldera ematen duena. Bere eguneroko imprimakietan ez bezala, hemengo bi hizkuntz ofizialak erabili dira kartel hauek, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz alegia. Baina kasualitatez, Kale Nagusikoa da Cajanavarra dioena eta atzekaldekoa Nafarroako Kubax jartzen duena. Seguru aski kartel hauek paratu zituzten langileen hutsegitea izanen da. Biztanlegoaren %99a euskalduna den herri batean nola jokatuko du ba horrela nafar guztiena den erakunde honek? Dena den, bakarren batek euskararen kontrako eraso berri baten aurrean egon gintzekela pentsatu aurretik, Nafarroako Kubak hankasartze hau konpondu beharko lukeela iruditzen zaigu.

Goizuetako Caja Navarrok bezero talde bat

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



GARA 01eko orrialde 09

«Hiru egunetan egin dugu grabazioa, hagitx abuda beraz. Bi egun behar izan ditugu gitarrak eta ahotsak sartu ahal izateko. Bertze egun batean, berriz, diskoko adorno guztiak sartu ahal izan ditugu, teklatuak eta biolinak batik bat. Azken batean, etxean bezala egin dugu diskoa».

PETTI

Berako musikaria
GARA 01-02-09

«Ez da inor gehiago etorriko Lekarozera, kaputxino gazteenak Erdialdeko Amerikan eta Hego Amerikan behar dituzte. Jakizu noiz arte inungo duen honek».

«Diru asko kostatzen zitzagun jendea laguntzen edukitzea. Frontoiak zera egun alokatua diogu kiwi lantegi bati, eta horrek diru aldetik asko laguntzen digu: baratzean ere erabiltzen dituzte kiwiak».

Alta FERNANDO

Lekarozko kaputxinoak
Egunkaria 01-02-09

◆ **Telenavarra eta Radio Euskadira ari zara lanean. Telebista edo irratia nahiago?**

◆ Telebistan arras gustora ari naiz eta irratian oraindik gustorago. Biak desberdinak dira.

◆ **Elkarrizketak, euskaraz edo gaztelaraz errexago?**

◆ Bietan nahiko ongi moldatzen naiz. Orain, idatzi lehenik erdaraz egiten dut.

◆ **Telebistako saiorki gustokoena?**

◆ Telebista ez dut sobera maite. Dena den, «Sorgiñen laratza» gustatzen zait eta gero, «Teleberri».

◆ **Eta gorrotagarriena?**

◆ Maria Teresa Camposen programa arras kutrea iruditzen zait.

◆ **Irratiko ahotsik onena?**

◆ Radio Euskadi da gehien aditzen dudana eta Almudena Cacho gustatzen zait. Xorroxin eta Baztango Cope ere aditzen dut, lanarengatik.

◆ **Zaineri eginen zenioke gustora elkarrizketa bat?**

◆ Edozeineri, ez dit ilusio berezirik egiten pertsonai famatu bat elkarrizketatzea. Inautetan hartza eta joaldun izandako Arizkun eta Iturengo adineko batzuei egindako elkarrizketa gustatu zitzaidan.

◆ **Inauteak aipatu dituzunex, lanerako edo besta egiteko?**

◆ Besta egiteko. Normalean astelehenean lana izaten dugu, baina asteartean libratzen saiatzen gara, baita lortu ere.

◆ **Aurtengo moxorroa prest?**

◆ Bai, baina ez zait batere gustatzen. Brasileñoz aterako gara.

◆ **Bestondorako sendabiderik onena?**

◆ Goizean Coca-Cola edan edo yogurt bat jan... eta biharamonera esperatu.

◆ **Baxtandarra izaki, ttuku-ttukua al zara?**

◆ Ez, ez dut uste. Gustatuko litzaidake gehixeago izatea, baina ez dut batere maliziarik.

◆ **Zer da errexago, zuk galderak prestatzea edo, orain bezala, erantzutea?**

◆ Horrelako galderak erantzutea errexo da, seguraski prestatzea zailagoa.



Mari Jose GARMENDIA

Kazetaria
ELIZONDO

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 948630735



ZALAIN
JATEETXEA

EGUNERO AMENTIA TER KANTIA

Zalain Auzoa
☎ 948631106
BERA

Beda eta bankoteak ematen dira



☎ 948631076 • BERA

SALAZONES UDANA, S. L.



**Importaziozko lehen haitateko babailu gaztusia
Babailu gezatua eta hozgelatua, erabiltzeko prest**

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabiloia • LESAKA • Tel. 948 631538 • Fax: 948 631550



Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

PINTURAS LEGUIA S.L.

Eztegara 26, 2.C - BERA



Iriarte-Echandi, s.i.

- Aholkularitza
- Artekartitza
- Aseguruak

Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

Euskararen udal ordenantzaren kontra jo dezake orain Nafarroako Gobernuak

Larunbatean, Iruñean eginen den manifestaziora joateko deia egin da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak euskararen udal ordenantzak aztertzen ari da, ilbeltzean onartutako Foru Dekretuaren aurka dauden edo ez ikusi eta gero, haien kontra egiteko. Hori izaten ahal da otsailaren 5ean onartutako eremu euskalduneko Ekintza Planaren ondorio nagusietakoa. Erabaki honen aitzinean jarrera zehazteko hainbat bilera egin dira eta eremu euskalduneko alkate batzuk bilera egin zuten otsailaren 7an Iruñean, erantzun bateratua emateko.



Bide seinaleetan ez du aldaketa handirik ekarriko Nafarroako Gobernuak onartutako Foru Dekretu berriak, seinale gehienak bi hizkuntzetan ageri direlako.

Artxibokoa

UDAL AUTONOMIAREN AURKAKO PLANA

Nafarroako Gobernuak onartutako plana hagitz larritzat jo da, udal autonomiaren aurka jotzen ahal duelako. Honela, Tomas Azpiroz Leitzako alkatearen ustez, «UEMAN sartuak gaudenez, horren aurka ere egin dezake. Nolanahi ere, hori udal autonomiaren aurka jotzea litzateke, eta ikusi behar da orain nondik

datarren hurrengo erabakia». Leitza da Nafarroan UEMA erakundearen sartua dagoen herririk handiena.

LANPOSTU DEIALDIK KALTETUENAK

Lanpostuen deialdiak izan daitezke kaltetuak. Orain, bai Bortzirietako Euskara Mankomunitatean dauden herrietan, bai Leitzaldeko udaletan, baita UEMAN sartuta

dauden herrietan ere, ia lanpostu guztietarako jotzen da euskararen ezagutza derrigorrezkotzat. Hori Foru Dekretuaren irizpideen aurka dago, bertan azpimarratzen baita euskara soilik itzultzaile eta irakasle lanpostuetarako eskatuko dela, eta gainontzekotan, merezimenduz hartzen denean, puntuazio osoaren %5,5a emanen zaio. Horregatik, Foru De-

kretua onartu eta biharramonean, Toki Administrazioiko Departamentutik eskatu egin zitzaion Leitzako Udalari igorri zezala 1993an onartutako euskararen ordenantzaren eta erabileraren testua. Orain aztertzen ari omen dira akordio hura. Leitzako alkateak dioenez, «gabi dago euskararen ordenantzaren aurka egin dezaketela eta hortik joako ote duten beldurra

dago. Egun, lanpostu guztietarako euskara eskatzen dugu eta euskararen erabilerarako bermea dago udalaren barrenean».

«EUSKARA GUZTION ESKUBIDEA» MANIFESTAZIOA LARUNBATEAN IRUÑEAN

«Euskara guztion eskubidea» lelopean manifestazioa eginen da larunbat honetan, otsailak 24, arratsaldeko 5,30etatik aitzinera Iruñean.

Gobernuaren dekretuaren aitzinean, Nafarroako hainbat udaletako alkateak bildu dira eta dekretu honen aurka agertzeko manifestaziorako deia egin dute. Oinarriak Plataformarekin batera. Ttipi-ttapa banatzen den eremuko alkate guztiak horren alde agertu dira. Izan ere, dekretu honek euskaldunon hizkuntz eskubideak zanpatzen dituela ikusten dute eta horrez gain, azkeneko urteotan udaletan eta erakundeetan euskararen alde egin den lana arriskuan dagoela.

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut
☎ 948631342 BERA-☎ 94863172 LESAKA

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tlnoa: 948 630 899 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Aitzate 17
BERA
☎ 948 630 763

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK, ENBU ADEPNAZIOAK, PLASTIBAZIOAK, FAXA, E-MANEA, SKANERJARRIA, PAPERJARRIA, ARGAZKI MONTAIAK
DISKINU, GRAFIKOA, INBENTIA, LANAK, SERBIZIOA, IRRITILEGAK, PUBLIZTATEA
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Atletismo eskola sortu da 7 urtez goitiko kirolarientzat

Atletismo modalitate gehienak landuko dira

ASIER GOGORTZA

Dagoeneko ez dira futbola eta eskupilota, garai batean bezala, herriko gazte kirolzaleek egiten ahal dituzten aukera bakarrak. Azken urteetan hainbat kirol berri sartu dira indarrez, dela igeriketa, waterpolo, txirindularitza... eta orain atletismoa.

Gaur den egunean badira atletismoaren adar batzuetan ibiltzen diren gazteak, baina batez ere kros herrikoi-etan parte hartzen dute, bertzerik ezean. Orain, ordea, altuera saltoa, luzera saltoa, abiadura lasterketa, pisu jaurtiketa, salto hirukoitza eta atletismoaren bertze hainbat modalitatetan trebatzen ahalko dira 7 urtez goitiko beratarrek.

Patxi Pikabea beratarra izanen da irakaslea, eta asteazken arratsaldeetan izanen dira saiokak, arratsaldeko 3,30etatik 4,30etara kiroldegian eta futbol zelaiko pistan. Antolatzaileek adiztera eman dutenez, atletismoko adar diferentek lantzeko material berri eta egokia badago. Izen emateko 1.000 pezeta ordaindu beharko da.

Aspacek egoitza ireki nahi du Beran
Etxe funtzionala deitzen



Orain arte krosa bertze atletismo kirolik ez zuten egiten ahal Berako gazteek.

diote Aspaceko arduradunek egin nahi duten egoitza berriari. Gaur egun Uxane zentruak Bortziritako 18 guttitu hartzen ditu egunez, baina egoitza berria Uxaneren beharrez-

ko osagarria izanen litzateke. Izan ere, egun osoko atentzioa lehenbailehen behar duten 5 lagun badira guttienez. Egoitza berriak 33 milioiko aurrekontua du, erdia Berako Udalari

eskatu diote, eta bertze erdia Nafarroako Gobernuko Ongizate Departamentuari. Zentru berria Osasun Etxea berriaren gaineko bi pisuetan jartzeko asmoa du te Aspacekoek.

Xabino, Ezpondakobordako astoa

Otsailaren 7ko goizean Kaxerna gainean agertu omen zen *Xabino*, aitzineko arratsen Ezpondakobordako soroan utzi ondoren. Bere nagusiak, Ezpondakobordako Martzelina Anduezak, norbaitek arratsen astoa lixatu eta asmo txarrez haraino eraman ote zuen susmoa du, eta ez omen da astoa horrela ibiltzen duten lehen aldia.

Dagoen tokian ongi segurtaturik dagoela adierazi digu, zerrakura eta guzi. Beraz, ez du sinesten astoa bakarrik atera zenik atatik. *Xabino* bakean uzteko eskatu du Martzelinak, bertzenaz noizbait trafiko stripuren bat sortzeko beldura du eta.



Flash

♦ **Arropa bilketa**
Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundeak hirugarren mundura arropa erabilia bidaltzeko kanpaina martxan jarri du. Hilabeteko lehendabiziko eta hirugarren asteartean egingen dute bilketa, eta Herriko Etxeko beheko plantan utzi beharko dira poltsak, arratsaldeko 5etatik 7etara.

♦ **Clown ikastaroa**
Norbere clown ezkutua ezagutzeko da ikastaroaren helburua, eta ez da beharrezkoa antzerkian esperientzia izatea. Ikastaroa martxoaren 24 eta 25ean, apirilaren 13, 14, 15ean eta maiatzaren 19 eta 20an egingen da Berako Kultur Etxean. Martxoaren 7a baino lehen eman behar da izena helbide honetan: <http://axura.biaizpe.net>.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
Iturgintza • gas • kalefakzio
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

Laudio-pinturak
Barnu eta
kalepailak.
Aurrekontuak
koopromisio gabe
Tel.: 948631602-610627059

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

Botox OSTATUA
948630052-Zalain-BERA

Orzegun Gizeneko Arraultze-Arraultzeak iragarriko ditu bertze urte batez Iñauteak

Igande arratsaldean zakozaharrek urteroko ibilaldia egingen dute

TTIPI-TTAPA

Orzegun Gizen egunez, «Arraultze arraultze, zingar arraultze, bat ez bada bertze» eskutuz ibiliko diren neska-mutikoen emanen diete hasiera bertze urte batez iñaute egunei. Ondotik, atsedenerako asti gehiegirik gabe, asteartean urte izanen da besta egiteko eta mozorrotzeko tarterik. Atxaspin, ortziraletan, «La ferreteria del soto» salsa taldea aditzeko modua izanen da ortziral gauean, 10,30etatik aitzinera.

Larunbat arratsean, lehendabiziko mozorroak ikusiko dira. Lesakako Gazte Asanbladak ere herri afaria antolatu du larunbat arratsean Arranon. Lehenik poteo-kalejira egingen da, arratseko 8etan Kattun hasita, 9,30etan afaria izanen da. Txartelak Berrin, Kattun eta Arranon hartzeko azken eguna ortzeguna da.

Igande arratsaldean, berriz, zakozaharrek izanen dira protagonista nagusiak. Aurtengoan hautsa dexente harrotu da: gero eta gehiago omen dira zakozahar gisara atera nahi dutenak, baina gero eta guttiago zakauk betetzen eta josten lanean aritzeko prest daudenak. Azkenean, nola edo hala moldatu



Fraindarrek urteroko ibilaldiak egingen dituzte iñaute astelehen eta asteartean. Argiñen Bordan ateratako argazkiak erakusten duenez, Igantziko baserrietara ere aliegatzen dira beraien musika eta zalapartarekin.

Arg.: Pepto Iantzik utzia

dute aurtengoa eta, beti bezala, musika bandaren laguntzaz egingen dute harat-honata. Plazan dantzaldia izanen da arratsean. Atxaspi osatuan berriz, ikuskizun berexia izanen da gauerdetik aitzinera, bi dragqueen etortzekoak baitira.

Astelehen eguerdian, beti bezala, talde ezberdinek prestatutako karrozarik ikusgarri-

nak ikusiko dira plaza inguruan. Urrietik urtera bada ezusteko ederra ematen duen talderen bat eta aurtan ere izanen da, dudarik gabe. Baserriz baserriko eskeia egiteko gelditzen den talde bakarrak. Fraindarrak alegia, astelehen goizean egingen dute lehen itzulia. Bertzeentzat egun horretan akautuko dira iñauteak, baina Fraindarrek aste-

artean ere ibiliko dira Izotzaldea auzoan eta herrian. Fraindarrek parte hartu nahi dutenek lehenbailehen eman behar dute izena Koskilla ostatuan.

Amnistiaren Aldeko Hilabetea

Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatutako Amnistiaren aldeko hilabetea otsailaren 9an, Bortziritako errepre-saliatu, senitarteko eta abokatuekin Arranon egindako mahainguruarekin. Joan den ortziraletan barrikotea egingen eta ifautetako igandean, otsailaren 25ean, arratsaldeko 6,30etan kontzentrazioa egingen da frontoikoatean. Martxoaren 2an, ortziraletan, preso ohiak ariko dira solasean eta solasgai izanen dira, arratseko 8,30etan Arranon egingen den mahainguruan. Martxoaren 10ean, larunbata, martxa bat egingen da.

Gai honekin lotuta, herriko talde batzuk Iñaki Fagoaga herriko presoaren egoera salatu zuten joan den astelehenean egindako batzarrean. Iñaki hagitz osasun baldintza kaxkarretan dago Zaragozako Daroca espetxean. Medikuz zerbitzua eskasa da eta azken aldirian, auzintan eritu da Iñaki.

flash

Xorroxin Irratiak estudio berria Eskribonean

1998. urtean Lesakako irrati lizentzia eman ziotenetik, estudioa kokatzeko lekuaren bila aritu da Xorroxin Irratia. Orain, Eskriboneako (Alondiga) bigarren solairua moldatu eta abudo inauguratuko dute estudioa, otsailak abailan edo martxoan. Nerea Alzuri arantzarra ariko da bertan lanean.

Beti Gazte elkarteren urteko batzarra

ortziral honetan, otsailak 23, arratsaldeko 7,30etan lehen deialdian eta 8etan bigarrenetan, egingen da. Ohiko kontuekin batera, Alondigako egoitzaren konponketaz eta erabileraz arituko dira.

Herrilurretako

belagi eta laborantza lurren aprobetxamenduak emanen ditu Udaletxeak. Horretarako 2001. urterako eskaria egin dutenek berriz ere eskaria aurkeztu beharko dute lehenbailehen Udal Erregistraoan.

BEKORROA
Lore eta landareak
© 948 63 78 26
Fraín auzoa • LESAKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnos.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

Amara Berria
Biltza 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plaza koabitatzaile eta moak
© 948 637573 • LESAKA

kixkur
ileapaindegia
Tel: 948 637429
Biltziako Plaza, 3 beheak
LESAKA

ETXALAR

Iñaute-Iñaute, zingar arraultze!

Ortzegun gizenarekin emanen zaie hasiera aurtengo iñauteei

JOSEBA ETA NEREA

Ortzegun honetan, otsailak 22, goizeko bedetziak aldera haur andana ibiliko da herrian barna, etxez etxe eskuan. Eskolako haurrek baserriar jantziak paratuko dituzte, saskia eskutan, «urtzaingizen, urtzaingizen, zingar arraultze, bat ez bada bertze: biek hobe!» kantatuz ibiltzeko. Eguerdirean akabita emanen diote eskeari eta arratsaldeko prestatuko dira. Izan ere, arratsaldetan, hiruak aldera, plaza bilduko dira denak, bakoitza bere mozorroarekin. Eskolan prestatutako bertsoak kantatuz emango diote hasiera herriko bueltari. Lehenik eta behin, Jauregieta auzoan haur hezkuntzakoek «Urreritillako bortz kantariak» antzestuko dute. Iñarretan Lehen Ziklokoek «Txorimaloa» eskainiko dute. Bigarren Ziklokoek «Diruak sendatuko du» egingen dute Andutzetan. Ondotik, denak elkartuko dira «Sutan dator dragoia» kantatzeko, eta azkenik plazan, Hirugarren Ziklokoek «Enperado-



Haundien Iñauteak

Astelehenean berriz, herriko gaztiak Haritzpen bilduko dira gosaldutik, trikitilarien laguntzaz baserriak ibiltzeko. Bi taldetan banatuko dira, goiko eta beheko auzoetara joateko. Bazkaltzeko tenorea ailegatzekoan, Anttonion bazkaldutako beheko auzotakoek eta Usazaleen txabolan goiko auzotakoek. Ondotik, baserriak segituko dute denek iluntzerarte. Afariak bi taldeak elkartuko ditu Haritzpen. Asteartean, karrozen desfilea izanen da eguerdi aldera, gosariaren ondotik. Herriari buelta eman eta gero, bazkaria izanen da Anttonion eta Herriko Ostatuan egingen den afariarekin emanen zaie bukaera aurtengo iñautei. Dudarik gabe, data seinatatuak herritar guzientzat.



rearen jantzi berria» antzestuko dute. Egun berexi honi bukaera emateko berendua eta dantza izanen da herriko trikitilarekin.

Sukaldaritza ikastaroa

Otsailaren 9an Larraburuan eginiko afari batekin eman zitzaien bukaera sukaldaritza

ikastaroari. Urritik otsailera bitarte bildu dira 20 bat lagun, ortzegunero 6tik 8etara Iñaki Pikabea Zalaingo sukaldariaren agindupean.

Flash

Arbolaren Eguna ospatu zuten eskolako haurrek

Otsailaren 7an izan zen Arbolaren Eguna Etxalarren. Landagain eskolako haur guztiak goizeko 9etan elkartu ziren, Axeri Lepora joateko. Lehen Hezkuntzakoak oinez joan baziren ere, Haur Hezkuntzakoak gurasoen kotxeetan hurbildu ziren bertan. Aurtengoan, lizarrak eta pagoak landatu zituzten; guzira 46. Haur bakoitzak bat. Egin zuten lana ez zen nolana hikoia izan: zuloak egin, zurtoiak paratu, ingurua garbitu, etab. Hau dena udalaren laguntzarekin egin zuten, eta lana eskertzeko hamaiketako ederra eskaini zien.

Ezkongaien Feria

Arrakastatsua izan zen. Otsailaren 11n egin zen Etxalarko Bentan eta bertzeak bertze erakusketak, zozketak, dastaketak eta desfilea ikusi ahal izan zuten goizez nahiz arratsalde bertaratutako guzietan.

BORTZIRI UNSION ANAIK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udako alokalerantz erabiltzen diren lantzen

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bititina, 45 • 948 637 503 • LESAKA

TATRULA

loredenda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

- bitzikeriak
- opariak
- enmarkazioak

IGANTZI

Hirurteko Azpiegitura Plangintzatik ez du sosik ere hartuko herriak

Otsailaren 24ko manifestaziorako autobusa antolatu nahi du Euskara Batzordeak

OSKAR TXOPERENA

Nafarroako Gobernuak Hirurteko Plangintzaren barrunean herrietan egiten dituen inbertsioak jakinarazi ditu. Zoritxarrez, ez da berri onik etorri, ez baita obra nagusiak egiteko -ur hornidura, bideak, apar-kaleak...- Iruñetik sosik ere etorriko Igantzira. Honek inbertsiorik haundienak bertze legegaldi baterako utzi beharko direla erran nahi du, eta gauza itikiago-etara jokatu beharko dela. Ez gaitu horrek kontsolatuko, baina, inguruko herri gehienak ere egoera berdintsuan daudela erran behar da.

Zahar Etxeko batzarrea

Larunbat honetan, otsailak 24, ilunabarrean, izanen da Baratzondo Jubilatuen Elkarte



Mus eta partxis txapelketen finalak

Otsailaren 10ean jokatu ziren Biltoki Elkarteke mus eta partxis txapelketetako finalak. Argazkian ikusten ahal denez, ez zuten brometako gogorik txapela jokatzera. Musean Joxelu eta Mikel Retegi nagusitu ziren Marino Zelaieta eta Juan Ramon Retegiren aurka -hiru Argatagaraitar finalean-. Partxisean ere familian gelditu ziren txapelak, Amalia Sein eta Idoia Bereau ama-alabak Juan Mari Arburua eta Miren Azkonari irabazi baitzieten. Ondotik, egonezinak alde batera utzita, goizalderateko besta egin zutela jakin ahal izan dugu. Ez dira horretan gelditzen Biltokiko berriak, Errenderiko Egiluze sagardotegira joateko izenemate-epea ireki baitute. Martxoaren 10ean dira joatekoak eta izena 28a baino lehen eman beharko da. Urteko batzarre nagusia, berriz, martxoaren 3ra-ko deitu dute, baina horren berri emateko geroago ere izanen dugu astia.



urteko batzarra. Urteroko gaiak izanen dituzte eztabaidagai: kontuak, urtean egindako lanak eta ekintzak, Junta berritzea, etabar...

Arkupeak antolatutako herriko bestan, ber-

tzalde, 56 bazkidek hartu zuten parte, 46 herrikoak eta 10 Lesakatik etorritakoak.

Autobusa manifestaziora

Euskara Batzordea lane-

an aritu da azken bi asteotan 24an Iruñean egiten den manifestaziora joateko autobusa herrian bertan antolatu nahian. Nafarroako Gobernuak euskarari izugarritzko erasoak egiten ari zaio,

eta, hori salatzeko antolatu da larunbateko manifestazioa. 21a bitarteko epea zegoen izena emateko. Halere, jona nahi duenak bidaia kotxez egiteko aukera badu oraindik.

ANTZUZELAKI S.L.

luzpe errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzuzelak	Taxuak
Angulak	Elizak
Orre antzuzelak	Skubak
Larreak	Zukak
Arak	Ilunak
Arak	Martak
Planak	

Membrak: Maitze
Zabarkak: Txaparra

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

XATURETXEA

**ZABARKAK
JATETXEA**

Tfnos: 948637027 LESAKA

IRU BIDE

estropada

Tfnos: 948 637 127
LESAKA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

*2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia*

ARANTZA

Pilotalekua ixteko dirulaguntza jasoko du azkenean Udalak

Larren hobekuntza lanak, berriz, Francisco Altzurik egingen ditu

ELIXABET ETA GARBINE

Jakina denez, Udaletxeak herrian egin nahi dituen lan batzuentzat dirulaguntza eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Bertzeak bertze, pilotalekua ixtea, igerilekua egin eta rokodromo bat egiteko eskatu zen dirulaguntza. Hasieran, pilotalekua ixteko laguntza ukatu egin bazuten ere, orain dirulaguntza hori emanen dela erran omen dute Iruñetik. Aurten zaila izanen denez obra egitea, aukera baldin bada, Udalak heldu den urterako utzi nahi du. Izan ere, dirulaguntza emateko baldintza lana aurtengo egitea zen.

Bertzalde, otsailean egin zen udal batzarre-

an, larreen hobekuntza lanak Francisco Altzurik Bertzeri ematea erabaki zen ahobatez, berea izan baitzen aurkeztutako eskaintza bakarra. 5.826.000 pezetatan egingen du lana, Nafarroako Gobernuako Ingurugiroa, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitza Departamenduen proiektuaren arabera.

Ur zikinak tratatzeko instalazioa

NILSA enpresa publikoak aurkeztutako proiektua eta baimeia ikusirik, enpresa hori ur zikinak tratatzeko instalazioa egiteko baimeia ematea erabaki du Udalak. Orain lan hau enpresaren bati emanen

zaio. Apirila aldean hasi nahi dute lanarekin.

Udalbiltzaren aldeko Hautetsien Mugimendua

Udalbiltzaren Aldeko Hautetsien Mugimendua Espainiako Gobernuak onartu berri duen humanitateen erreformarako hezkuntza dekretua ikusirik EHko zinegotzien boetekin zera erabaki zent: dekretu hori Madrilgo eta Parisiko Gobernuak darabilten hezkuntza politikaren ildoan jarritzen dela eta, beraz, euskaldunok gure hezkuntza eredu antolatzeko eskubideen aurka doala. Eraberean, herriko gazte batzuk Xabi Resano eta Eneko Zestau preso gazteen egoera dela eta



Iñaute ederrak aurtengoak ere

Argazkian ageri den bezala, mozorro zuriek etxez etxe ibilaldia egin zuten eskean. Halere, ikusmin handiena herritarren eta bertsoariaren arteko kirol apostuak sortu zuten. Bai pilotan, baita arpanan ere, herritarrek nagusitu ziren. Pilotan, Agesta eta Errandoneak; Lizasoren semea eta Euzkitze izan zuten aitzinean. Arpanan, Lizaso eta Tellerian kontra aritu ziren Agesta eta Lizardi.

idatzia aurkeztu zuten. EAJko zinegotziek batzarra utzi bazuten ere, bi gazteei eta beraien senideei elkartasuna adieraztea erabaki zen.

Arkupeak elkarteko bazkaria

Arkupeak jubilatuen el-

karteak urtero egiten duen bazkaria igande honetan, otsailak 25, egingen da Zahar Txokon, Meza Nagusiaren ondotik. Bazkalondoan musika ere izanen omen dute, baita mus txapelketa ere izena ematen dutenentzat.

JATONE - GOZOTEKIA

 Alzate 19-94553796 - 2574

ALBERGIA JATETXEA

 948 634179
 ARANTZA

GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

LESACA

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe

MALDAERREKA, S.L.
 24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

H. Lopez itargintza

- Kitzfokzioa
- Gas instalazioak
- Itargintza industriala
- Urzotze sistemak

 Tel.: 948 45 21 26
 Mug.: 617 34 99 44

ola SAGARDOTEGIA
 250 lagun eserita
 Klimatizatua
 Sagardotegi menua
 102 Meaka auzoa
20304 IRUN
 Tel: 943 623 130

Otsailaren 22tik 25era ospatuko dira herriko iñauteak

Igandean herri bazkaria izanen da Aranzoko elkarte

TTIPI-TTAPA

Ortzegunean, otsailak 22, arratseko 8etan trikitixarekin eginen den euskal poteoarekin hasera emanen zaie aurtengo ifauteei. Ondoren, herri afaria eginen da Belarra kafetegian.

Ortzirak goizeko 9etan Titi ostatuan elkartu ondotik, trikitilari-kin ibilbidea eginen dute gazteek baserrietan barna. Lehen Hezkuntzako ikasleek mozorro desfilea eginen dute herriko karriketan barna. Jubilatuen Ostatuan eginen den bazkariaren aitzintik, euskal poteoa eginen da trikitixarekin.

Arratsaldean ere baserrietan ibiliko dira. Arratsalde eta gaueko musika Beti Alai txarangak jarriko du, baita Amezitia jatetxean eginen den afarian ere. Mozorro onenari bi go-



Aurten ere, hainbat mozorro eta karroza ikustea espero da. Foto Mena

sariko saria eskainiko dio Titi Ostatuak.

Larunbatean, Beti jai txarangaren goiz-argi soinuarekin ematen dira doneztebarrak. Aro-zena Ostatuan gosari-bazkaria eginen dute eta arratsaldeko 4etan ka-

rozak aterako dira Aparandik, herriari itzulia emateko. Ondoren, Bear Zana pilotalekuan rodeo amerikarra eginen da eta gero, zozketa. Arratsalde eta gauez Corco txaranga ariko da. Igandean, azkenik, goi-

zez Beti Alai txaranga arituko da eta euskal poteoa izanen da trikitilari-ekin. Akitzeko, bazkaria eginen da Aranzoko elkarte, trikitilari eta Jexux Mari Irazu eta Jokin Soroza- bal bertsolariekin.

'Udaberri Gazte' Natur Kirol kanpaina eskualdean

Datorren udaberri-rako Baztan, Bertizarrana, Malerreka eta Bortziriak eskualde-tan natur kirolak egiteko aukera zabala izanen da. Bidasoa Kultur Zerbitzuak (BKZ), eskualdeko hainbat udal, kirol, kultur eta guraso elkarte, eskola eta bertze taldeekin batera kanpaina bultzatzeko asmoa du.

Abenturako natur ekintza hauek udaberriko sei igande arratsaldetan burutuko dira eta adinei dagokionez, bi igande 8-13 urteko umeentzat zuzenduak izanen dira eta bertze lau igande hamalautik goitiko-entzat. Aktibidadeak ere ezberdinak izanen dira, batzuk lasaiak eta bertzeak «adrenalina piztu nahi dutenentzat arras egokiak».

Helburua giro euskaldun batean eskualdeko gazteei aukera zabala eskeintzea da, harremanak estutuz eta gure inguruan ditugun natur baliabideak hobekixeago ezagutuz eta gozatuz. Informazio gehiago nahi izanez gero BKZra deitu (948 592322 telefonoan).

ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91



BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Aranzoko karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

- Igeltseritza
 - Pintura
 - Iturgintza
 - Zurgintza
 - Elektrizitatea
 - Brikolaia...
- BEHAR DITUZTEN **LAN TXIKI** HORIENTZAT
- ERREFORMAK - MUNTAIAK - KONPONKETAK

OFIZIALE GUZTIAK

zure zerbitzura:



SERVI-LAN

Alicia T. Erlanz

SERVI-LAN

Elizagibela, 5 - behea • DONEZTEBE
Tel.: 948 456193 - Faxa: 948 450 760

BERTIZARANA

Oieregiko kontzejuak ez du nahi enpresarik Bertizko Jaurreriaren ondoan

Leku horretan kiroldegia jartzeko asmoa omen dute

TTIPI-TTAPA

Oieregiko kontzejuak ez du nahi aluminio lantegi bat Bertizko jaurreriaren ondoan eta kirolera zuzendua dagoen lur eremuan jartzetik. Bertizaranako Udalak ortziral honetan egin behar zuen gaia aztertzeke batzarra, baina Oieregiko kontzejuak aitzinetik erakutsi du kontrako jarrera. Udalarari eta Nafarroako Gobernuari bidalitako akordioan Oieregiko kontzejuko kideek diotenez, «*industria ekarriko duen edozein proiekturen alde gaude, baina ingurumena zaindu behar da eta Bertizko jaurreriarendako ez dardila kaltegarria izan*».



Gaur egungo errepedearen eta abudo eginen denaren artean kokatuko litzateke lantegi berria, NARBARTEN. Artxibokoa

Idatzian diotenez, «*lekurik egokiena Aceraliaren industrialdea da, Legasan, eta ez enpresariak nahi duen lekuan,*

bailararen erdi-erdian». Joan den urteko irailean egindako batzarrean, leku horretan kiroldegia egitea eskatu

omen zuten. 2001. urteko aurrekontuan lurra erosi eta proiektua egitea sartzea eskatu zuten. Oieregiko kontze-

juaren ustez, Bertizaranako Udalaren intenzioa «*arau subsidiarioak aldatu eta kirolari zuzendutako lurak industrialak bihurtzea da*». Kontuak kontu, lantegia 11.700 metro koadroko nabe batean jarriko litzateke, eta ez Oieregin, NARBARTENeko lurretan baizik.

JOAN DEN ORTZIRALEKO BATZARREAN EZTABAIDATZEKOA ZEN

Andres Etxenike, Bertizaranako alkateak erran duenez, «*plenoak oraindik ez du erabakirik hartu, beraz, soberra abudo da horretaz solasteko. Gauza batzuk argitu behar dira, industria kutsagarria den edo ez...*».

SALDIAS

Kukumiku aldizkaria argitara eman dute eskolako ikasleek

Bosgarren eta seigarren mailako hiru neska-mutikoez egin dute lana

TTIPI-TTAPA

Saldiasko eskolan Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren maila ikasten duten Garikoitz, Maite eta Endiakak Kukumiku aldizkaria egin eta plazaratu dute otsailean. Hizkuntza ikasgaiaren aldizkaria egitea proposatu zien irakasleak eta

hiru ikasle hauek, lana gogotik egin eta gero, hogeitortzi aldizkari txukuna atera dute. Garikoitz, Maite eta Endiakak ohartarazi dute, «*aldizkari hau egitea labi hilabete kostatu zaigu, horregatik berri batzuk zahar xamarra gelditu dira*».

Dena den, Saldiasen sortutako Ibai mutikoen edo erakle berri den

granjaren albistea jasotzen da Kukumiku aldizkarian, beste berri burren artean. Ipuinak, euskara zuzen erabiltzeko aholkuak, bertsoak, liburu eta pelikulen erreseinak, komikiak, elkarrizketak, gutunen txokoa, herri inguruko ibilaldiak, kirolen tartea, letra zopak, txistak... eta beste hainbeste sail topatzen ahal di-

ra. Berrien tartean erraten dute, «*gaur egun zazpi ikasle ditu Saldiasko eskolak eta hurrengo urtean bost geratuko dira. baliteke, hemendiko bi urtera Saldiasko eskola itzea*».



Hogeitortzi aldizkaria atera dute Saldiasko eskolako ikasleek.

Saldiasko eskolara ez dakigu nolako izanen den, baina kazetaritza etorkizun han-

MALERREKA

Elgorriagako Herriko Ostatua hartzeko lehiaketa

Martxoaren 5ean akituko da proposamenak udal bulegoetan aurkezteko epea

TTIPI-TTAPA

Elgorriagako Udalak Herriko Ostatua hartzeko lehiaketa deialdia egin du. Ostatua urte baterako emanen da eta epe hori luzatzeko aukera izanen du hartzaileak. Behin behineko fidantza 50.000 pezetakoa da eta ostatua hartzen duenak 150.000 pezeta ordaintza ordaindu beharko du. Gainera, hilabetero 20.000 pezeta ordaindu beharko ditu guttienez ostalari berriak (gehi BEZa). Eskaintza ekonomikoaz gain, lehiaketan parte hartzen dutenek beraien ustez egokiak izaten ahal diren iradokizunak aurkezten ahal dituzte, udalak aztertu eta ostatua ematerakoan kontuan hartzeko.

Proposamenak Elgorriagako udal bulegoetan aurkezteko epea martxoaren 5ean goizeko 11etan akituko da. Eskaintzak martxoaren 12an, arratseko 8etan zabalduko dira leku berrietan.



Herriko Etxeko ostatua urtebeterako emanen du Udalak.

Oihan enkantea Ezkurran

Biureta inguruan 347 insignis pinu ateratzeko oihan enkantea deitu du Ezkurra Udalak. Guzira, 352,13 metro kubiko zur emanen dute eta hasierako

prezioa 3.295.937 pezetakoa da (BEZ barne). Udal bulegoan lanak aurkezteko epea martxoaren 3ko eguerdia baino lehen bukatuko da.



Ez eman buelta gehiagorik, Rural Kutxa 2001 P.A.C. prestatzen lagunduko dizu.



Rural Kutxa: P.A.C. 2001 egiteko biderik laburrena

Ez eman buelta gehiagorik. Baserriak nahikoa lan ematen du P.A.C.-aren paperekin hasi gabe ere. Utzi lan hori gure esku. Especialistak gara P.A.C.-aren tramiteak egiten hasieratik bukaerara. Joen-etorri, atzerapen eta denborarik galdu gabe. Argibide gehiagorako, joan zaitez hurbilen duzun Rural Kutxaren bulegora.



GOIZUETA

Dena prest hurrengo igandetik asteartera bitarteko eromenerako

Ia milioi bat pezetako aurrekontua izanen dute ihauteri hauek

ESTEBAN AROTZENA

Hurrengo igandean, otsailak 25, gaueko 10ak inguruan Izkiña jate-txean mozorroen taldea elkartzen denean hasiko dira aurtengo karnabalak. Egun horretako afalaurrian ere, igande berezia denaren seinalea izanen da herrian, bertako Xapó musika taldeak joko baitu plazan arratsalde eta gauean.

Prestatutako egitaraua zuzen betetzen baldin bada, astelehenean goizeko 8etarako Zibolatik goiti izanen dira mozorroak. «Kamino partikularrean» bi talde egingen dira eta berehala hasiko da baserriz baserriko puska biltzea. Herrian ere izanen da zer ikusi arratsaldeko



Mozorroak puska biltzen ibiliko dira aurtien ere.

Arbóbokoa

Setatik aurrera, ordu horretan kaleratuko baita Anek zuzenduko duen eskolako umeen konpartsa. Mozorroak ailegatu orduko -arratsal-

deko 6ak inguruan -herriko txaranga jotzen hasiko da, haiei ongi etorria eman ondoren po- teo berezia egin asmoz. Asteartera igaroz

esan, goizeko 10etan hasiko dela herriko puska biltzea eta arratsaldeko 8etan aterako dela zahia. Goizuetako ifiauterien ikur den dantza hau bu-

katutakoan mozorrotuko da jendea, hurrengo goizera arte iraunen duen eromenari hasiera emanez. Igandean bezala, ondorengo bi egunetan ere dantzaldiak izanen dira plazan ilunabarrean eta gauean. Astelehenean trikiti talde batek joko du, eta asteartean Trakets taldeak.

Antolatzaileen kalkuluen arabera, berrogei-berrogeita bost neska-mutil izanen omen dira aurtengo mozorroen taldean. Aurrekontua berriz, ia milioi bat pezetakoa da. Udalaren, Umore Onaren eta Gazte Asanbladaren laguntza jasoko dute mozorroek, baina dirutzarik haundiena, urtero bezala, etxez etxeko esketik etorriko da aurtien ere.

ARANO

Igandean ospatu ditugu ihauteriak

Baserriz baserri eskean ibili ziren zomorroak

KONTXI KLABER

Igandean ospatu zituen ihauteriak. Betiko modura, zomorroek, neska eta mutilez osatutako koadrilak, Suro auzoan eman zieten hasiera, korneta hotz eta trikiti eta pandero soinuekin. Suroko baserriak jira orduko beste auzoetara jo zuten mo-

zorroek, Arranbide, Benta Berri, Behoko herri eta, azkenik, Arano herrian bertan puska bilduz. Batek burrutzia eramaten du eta hemen urdaia eta txorizoak jartzen dituzte, beste batek xextua arraultzeak jasotzeko eta ditua biltzeko poltsa ere eramaten dute. Hemen bukatutakoan mozorroek el-

kartean bazkaldu zuten eta gero zagi dantza egiteko elkartetik herri sarrerara joan ziren, saltoka makilak eskuan ziztuztela. Lau lekutan dantzatzatzen da zagi dantza, Tximitxeneko atean, Etxe-Haundiko atean, Itturri parean eta azken saioa plaza. Ihauteriak bukatzeko, herri afaria egin zen.



Zomorroak, Suroan hasi eta auzoz auzo ibili ziren igandean.

Arbóbokoa

Olaberriko zubia egiteko dirulaguntza izanen da

Hirurteko Azpiegitura Planaren barrenean

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak, 2001-2003 urte-
etarako dirulaguntzak
finkatu ditu eta Leitza-
rako 35,6 milioi peze-
tatako dirulaguntza
onartu du. Hiru obreta-
rako eskatu zen dirula-
guntza: Patxi Arrazola
aizoko ur-hornidura, sa-
neamendu eta zoladu-
ra, Sakuluko kamioaren
moldaketa eta herrira-
ko eta industrialderako
sarrera berria egin ahal
izateko Olaberri ondo-
an egin nahi den zubia.
Eskara hauetatik Ola-
berriko zubiarri dago-
kion dirulaguntza beste-
rik ez du onartu Gober-
nuak (aurrekontuaren
%50a). Denia den, La-
raunekin batera, zabo-
rrekin lotutako beste
kontu-erako (Manda-
zaienbordako zaborte-
gia itxi, adibidez), bes-
te 7.750.000 pezeta lor-
tu dira.

**Antton Erkiziaren
argazkiak irabazi du
Mendibil mendi
taldearen lehiaketa**

Mendibil mendi tal-
deak antolatutako ar-
gazki lehiaketara hiru-
rogei argazki aurkeztu
dira. Argazki hauekin
erakusketa bat antolatu
dute. Hau "Florirenden-
dan" ikus daiteke otsai-
laren 14tik aurrera.
Mendi taldeak lehen sa-
ria Antton Erkiziak aur-
keztutako argazki bute-
ri eman dio eta bigarre-
na Miel Mari Elosegiri
(15.000 eta 10.000 pe-
zetatiko sariak jaso di-
tuzte).

Baino gure iritzia ere
jakin nahi dute eta ho-
rretarako botoa Maimur
eta Astiz liburudenda-
tan edo Karrape Irratian
utzi dezakegu sobre itxi
batean. Boto gehien ja-
sotzen duenak ere izan-
en du bere saria. Ikus
ezazue erakusketa me-
rezi du eta!

**Obra batzuk
egiteko
langabetuak
hartuko ditu Udalak**

Nafarroako Gober-
nuko Enplegua Sus-
tatzeko Zerbitzuak dir-
ulaguntzak eman ohi
dizkio Udalari langa-
bezian dagoen jendea
hartu eta hainbat obra
burutzeko.

Aurtan Leitza-
ko Udalak honako obrak
egiteko asmoa erakutsi
dio aipatutako zerbi-
tzuari: herriko hainbat
bide eta parea konpon-
tzea, barandak margo-
tzea, udaletxe-ko aurre-
aldea edo fatxada gar-
bitzea, kanposantuko
barreneko bidea egoki-
tzea, Ixkibarren iturri
bat jartzea eta Arkiskil,
Érasote eta Errekako bi-
deetako ubide edo ku-
netak egitea. Nafarroa-
ko Gobernuak onartu-
tako dirulaguntzaren
arabera egiten dira lan-
kontratuak.



Beste kontzertu bat Torrea Tabernan

Martxoaren 2an, ostirala, gaueko 11tan, «Ekintza» taldearen kontzertua izanen da Torrea tabernan.

Artibokoa



Sahararrak ekartzeko berriz lanean

Aresoko plazan ageri dira herriko umeak joan den udan etorritako bost sahararrek. Saharako Herriarekin Elkartasun taldeak berriz ere ekin dio uda honetan herri horretako neska-mutiko-
ak ekartzeko lanari.

Etxebizitzak egiteko lur guziak saldu dira

Sokatira taldeak ongi hasi du Euskal Herriko txapelketa

JUANA MARI SAIZAR

Orain dela aste gu-
txi aipatzen genuen be-
zala, lur eremuak salgai
zeuden etxebizitzak egi-
teko. Badirudi denak
saldu egin direla eta
Udalak urbanizatzeko
lanak, argia, ura eta bi-
deak laister hasteko as-
moa daukela. Beste lur
saila dago izendatuta
Babes Ofizialeko sei
etxebizitza egiteko eta
Udalak enkantean ate-
ratzeko asmoa dauka.

Sokatira taldea Euskal Herriko txapelketa

Dagoeneko hasiak
dira herriko sokatira tal-

dekoak Euskal Herriko
txapelketa. 560 kilo-
lo lehen tiraldian eder-
ki aritu ziren.

Droga menpekotasunaren prebentziorako materiala

Drogomenpekotasun
aren prebentziorako tek-
nikariak, eskolako
orientatzaileekin bate-
ra, hitzaldia antolatu
zuen pasa den astean,
1., 2. eta 3. mailako ume-
en gurasoekin. Jende gu-
txi agertu zenez, eta nahi
izanez gero, materiala
eta bere funtzionamen-
dua Junkaleri eskatzen
ahal zaio 948 610901
telefonoan.

gaztelu sol
iturgintza

kalefakzioa saneamendua gasa
948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

BAZTAN

Ez da Zahar Etixerik eginen Ornozko San Martin eskolan

Nafarroako Gobernuak ez du inguru honetan bertzerik eginen

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak ez du Baztan-Bidasoaldean bertze zahar etxerik egiteko inentziorik, ez dagoelako bere planetan sartua. Hori da, bederen, Oronozko San Martin eskolan erresidentzia berria antolatzeke aurkeztutako egitasmoari Iruñetik emandako erantzuna.

Teknikari batzuk eskualde honetan adintuendako erresidentzia berri bat egiteko aukerak aztertuz ikerketa bat egin zuten. Batez ere, lehendik dagoen erakunde bat emandutuz egitea zen asmoa eta, horretarako, Oronozko San Martin eskola aukeratu zen. Ikerketaren arabera, lekua egokia da. Alde batetik, Bertizko jaurretirik arras hurbil dago eta, gainera, saihesbidea egiten denean, ibilgailuen harat-honata aunitz murriztuko da. Bere egitura aldatu gabe, moldaketa egokia egiten ahal zaio San Martin eskolari eta 80 lagunendako

lekua eskainiko luke. Bertan sortuko liratekeen lanpostuak ere aunitz izanen ziren.

Egin beharreko inbertsioa handia izanen litzateke, baina lanaren xedeak arrazoituko luke dirutza hori. Ikerketaren arabera, Nafarroako Gobernuak parte hartu beharko luke egitasmoan, alde batek erresidentzia ez da din pribatua izan eta, bertetik, egonaldia ez garestitzeko eta edozeinek erresidentziara joateko aukera izan dezan.

**«IRUÑA ETA HERRI
HANDIAK BAKARRIK
HORNITZEN DITUZTE»**

Nafarroako Gobernuari proiektuaren berri eman ondotik, honek Baztan-Bidasoan ez dela bertze zahar etxerik egiteko asmorik azaldu du. Arrazoirik ez dute eman, bakar-bakarrik beraien planetan ez dagoela aurikusia. Ramon Apezetxea, San Martin eskolako zuzendariak adierazi digunez, «herri tikiok ez bagara mugitzen, zerbitzurik gabe



Iñauteak azken txanpan

Baztan aldean, kasik urte berriarekin hasitako iñauteak abudo akituko dira. Argazkian ageri den bezala, Jo ala Jo taldekoek Gizakunde Eguna ospatu zuten, Arizkungo elkartearen egindako mozorroren afariarekin. Gauerdian puske biltzea eta mamuru uxatzea egin zuten, Arizkundik Erratzurat bidet zaharretik.



gelditzen ahal gara. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren planetan Iruña eta herri handiak hornitzeko asmoak dituzte, herri tikiak eta, batez ere, mendialdekoak alde batera utziz».

Dena den, Ramon Apezetxearen ustez ez dira aukera guztiak itxi: «Beharra bada, eta hori betetzea eskatzen baldin bada, denok parte hartuz, gauzak aldatzen ahal dira».

Laurentxeko bihurtzea zabalduko du Herrilan Departamenduak

Nafarroako Gobernuak Herrilan Departamenduak N-121-B errepidean Arizkungo bideturte inguruan dagoen Laurentxeko bihurtzea hobetzeko eta zabalteko lanak abudo hasiko omen ditu. Jakina denez, kurba arriskutsu honetan istripu aunitz gertatu

dira eta horietako batean hildakoak ere izan dira. Laurentx ingurua arras iluna eta suspela da. Hormaren ondorioz, aunitz autoak irristatu egiten dira eta horregatik izaten dira istripu gehienak. Kurba zabalteaz gain, erreka-aren kontra 25 metro luzeko paretia eginen da.

Bierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Gíroa
Iturriotz Auzoa • 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urutia • 948 580 013
ELIZONDO

BAZTAN

Balleko Udalak neurri gogorak hartuko ditu Zugarramurdik berean segitzen badu

Baztango lurretan dauden 57 baserri Zugarramurdikoak izatea nahi dute

TTPI-TTAPA

Baztango dermionan itzuden eta Zugarramurdiko Udalak nahi dituen 57 baserrien afera berri ere piztu da. Nafarroako Gobernuako Tiki Administrazio Departamenduak esku aldatze espedientearekin aitzinera segitzea erabaki du. Balleko Udalik serioski adierazi dio Zugarramurdikoari afera honekin segitzen bada «neurri gogorak» hartuko dituela eta «bizilagun gisara jasotzen diren zerbitzuak kenduko dizkietela».

Jakina denez, 57 baserrietako bizilagunak Zugarramurdin erroldatutako daude eta bertan egiten dute eguneroko bizimodua, baina baserriak eta lurak Baztanen daude eta zergak Balleko ordaintzen dituzte. Afera aspaldikoa da eta tarteka-tarteka biziberritzen da bi udalen arteko eztabaida.

Elizondoko ANFAS berriz ere lanean

Elizondoko ANFAS, gunititu fisiko eta siki-



Baserriarrek zugarramurdiarrak sentitzen direla azpimarratu dute, baina Baztanek ez dio bere lurraldearen zati bati uko egin nahi.

koei laguntza eskeintzeko elkarteak berri ere normalitate osoan puzatu da martxan.

Orain dela zenbait hilabete gizarteari laguntzeko zerbitzu hau egunero eramaten zuen Lourdes Alemanek baina hartu zuenez geroztik, zerbitzu pertsonalizatua bakarrik Iruñean eskeini dute, baina orain normaltasunez funtzionatzen du berri ere. Halere aipatzekoa da tarte honetan Elizondoko Pedro Axular ka-

rrikan duten egoitzan aisialdi klubak martxan jarraitu duela. Dena den, erran bezala, ANFAS elkarteak berri ere martxan jarri ditu Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Malerreka eta Bortzirietarako zerbitzuak.

Orduetgia lehengoa izan da: goizeko 9etatik eguerdiko 1etara eta telefonoa: 948452201.

El Salvadorreri laguntza

Elizondoko San Francisco Javier ikas-

te txeko Guraso Elkarteak El Salvadorri laguntza emateko ilbeltzaren bigarren hamabostaldian antolatutako diru bilketa kanpaina 140.220 pezeta lortu dira, Angel Bertiz lehendakariak adierazitakoren arabera. Lerro hauen bitartez, guraso, irakasle eta batez ere neska-mutikoen laguntza eskertu nahi dituzte. «tragedia handi hau ulertu eta laguntzeko bormolatea erakutsi dutelako».

flash

Amaiurko Borda jauregia

enkantean saltzeko jarri du Espainiako Barne Ministeritzak. 1944. urtean Ministerioak erosi zuenetik 1996 urtera arte guardia zibilaren kuartela izan zen Borda jauregia eta orain itxirik dago. Hasierako prezioa 163,3 milioi pezetakoa da eta proposamenak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu behar dira Madril-en.

Arraiozko saihebidera

aziendak ez sartzeko hesiak eta parri-lak jartzea eskatu dio Udalak Nafarroako Gobernuako Nekazaritza Departamenduari. Behin baino gehiagotan zaldiak azaldu omen dira bidean, horrek sortzen duen arriskuarekin.

%0,7 giza laguntzarako

Latinoamerikako sei proiekturako lau milioi terdi pezeta dirulaguntza emanen du Udalak. Elizondoko Agustín Elizalde apezak 1,1 milioi jasoko du. Berroetako Felipe Santestebanek 850.000 pezeta eta Amaiurko Joaquina Aleman mojak 625.000 pezeta. Nikaraguarri laguntzeko proiektu batek ere dirulaguntza jasoko du.

ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)

Faxa: 948 581274

IPINGI ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, t. 948 580939

ELIZONDO

UDABERRIKO ARROPA

BLUSAK, KAMISAK, GONAK, JERTSEAK, GALTZAK, TRAJEAK, KONJUNTOAK eta OSAGARRIAK

Jean Aniotzbehere auzapezaren zerrenda baizik ez da aurkezten martxoko bozetan

Bertzerik agertzen ez bada, 1977tik honat lehen aldia izanen da lista bakarrarekin

ANA MARI ETA FRED

Herri eta kantonamenduko bozak marxoaren 11n (1. itzulia) eta 18an (2. itzulia beharrez) iraganen dira Ipar Euskal Herrian bezala Saran ere. Herriko hauteskunde kasuan, lehen hauek idaztean zerrenda bat baizik ez da aurkezten, Jean Aniotzbehere auzapezarena: Berekin bat, Odile Ayez, Elisabeth Azkarraga, Joset Etxegarai, Bittori Etxeberri, Chantal Garat, Tito Gorozureta, Martin Goienetxe, Xan Harriague, Jean Baptiste Indart, Patrick Iribarren, Philippe Ivandeckis, Michel Libier, Annie Londaitz, Jean Louis Ordoki, Hervé Soriano, Jeannot Uhart, Jean Yves Zunda eta Xabier Zunda.

Herriko kontseilariak sei urtetarik hautatzen dira, eta bertze zerrendarik aurkeztuko ez balitz, 1977tik honat, lehen aldiz litzateke lista bakarra presentatzen dela Saran.

Kantonamenduko bozak aldiz, 7 urtetarik egiten dira eta hor aise hautu gehiago izanen dugu. Alabainan, karia hortan alderdiak mugitzen hasiak dira eta bilkura publikoak antolatzen dituzte Saran ere. Hala nola, Panpi Dir-



Manex Bergara eta Antton Bidegain Izarra errugbi taldeak antolatu txapelketa nagusian irabazte izan ziren.

Argazkia: Evelyn Ebeigarai

ssar, Ezpeletako kantonamenduko Abertzaleen Batasunak duen hautagaiak otsailaren 26an, astelehenez, arratsaldeko 6etan, Denen Etxeko lehen estaian aurkeztuko dauku bere proiektua. Egun berean, bainan arratsko 9etan Peio Labeguerieren aldi izanen da bere zerrendaren xedeen erakustea.

Errugbi taldearen eta Frantziako mus txapelketak

Sarako Izarra errugbi taldeak antolatu mus txapelketa iragan zen otsailaren 3an, Omordia gelan. Denetan berrogoi bikote baldin baziren musean aritzeko, 130 lagunendako afaria

prestatu behar izan zuten Claude Etxeberri, Ramuntxo Etxebestek eta Jeannot Mundutezik. Txapelketa nagusian Manex Bergara eta Antton Bidegainek irabazi zieten Martin Goienetxe eta Isabelle Lekunari. Kontsolagarri garai Beñat Berruet eta Jean Mixel Saint Martin izan ziren, Jean Mixel Iratzoki eta Xabier Tapiaren kontra. Kontsolagarri ttikian Céline Guridi eta Christine Lisayouk nagusitu ziren Jamatit Ameztotz eta Pettan Elizalderi.

Herriko Etxeko edantegian Frantziako 39. mus txapelketaren kanporaketa bururatu da. Orain bortz bikotek

txapelketa segituko dute kantonamenduko bertze taldeen kontra ari-tuz. Hauek dira Sarako ordezkariak: Etxebarria anaiak, Pettan Elizalde eta Beñat Etxegarai, Manu Agerre eta Bruno Martin, Stéphane Agerre eta Marie Pierre Iribarren, Jean Behotegi eta Germain Larzabal.

Euskal Herriko pasaka txapelgoa

Pausuko Inazio trinketean Euskal Herriko pasaka txapelketako finala jokatu zen otsailaren 11n. Partida luzea eta gogorra izan zen, honen ondoren Baigorriko Ziburua eta Lakostek jantzi zuten txapela. Bainan kontrako saritar biko-

teak hiru joko diferentzi utzi zieten bakarrik; 13 eta 10eko emaitzarekin finitu zen partida.

Joan den urtean ere Maitin Arrietak eta Jean Jacques Elizerik guttiz ez zuten irabazi txapelgoa (13-11 Hendaiaren alde). Euskal Herriko liga bukatu ondoren, orain Frantziako txapelgoa hasiko da, eta saratarrei ia erdi finalerako txartela dute. Agian, marxoaren 4ean Baigorriko trinketean jokatu den finalean sailkatuko dire eta txapela jantzi!

Errugbi konduak

Asteak joan, asteak etorri, Sarako Izarra errugbi taldearen emaitzak ez dira hobetzen, otsailaren 11n berriz ere galdu egin baitzuen, oraingoan Lit eta Mixeko taldearen kontra (13-15). Aniamaniako zelaian bildu 150 jarraitzaileen oihuak ez dira aski izan, eta bertze behin ere, Basurdeak pundurik gabe itzuli dira aldageletarat.

Partidu honen ondortik, saratarrek multxoko azken postuan ditugu. Hala ere, baikor izateko armazoinik badugu, bigarren taldeak (bederen!) irabazi egin baitu 18 eta 10. Ondoko zoingehiagoka otsailaren 25ean jokatu dute Pouillon-en kontra.

BURKAITZEA

ostatu
erretegia

Zugarramurdi bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI

ttipi-ttapa internet

<http://www.ttipi.com/topagunea/ttipi-ttapa>
E-mail: ttipi-ttapa@topagunea.com

HERRIKO
ETXEXO
EDANTEGIA

MAIAN ETA VERHOVE
64010 SARA • TEL. 05 50 54 25 18

Ateratzen den Herriko Etxeko gehiengoa banaturik martxoko bozetan

Otsailaren 6an, hogeita hamar hektarea oihan erre ziren Kamietako Borda ondoan

FRANCK DOLOSOR

Duela sei urte hautatu zen Herriko Etxeko gehiengoak zatiturik bururatzen du agintaldia eta zatiturik presentatuko da heldu diren hauteskundeetan. Gehiengo kontseilari batzuek berex abiatzea deliberratu dute, auzapezak ezin izan du bertze zerrendarik muntatu eta oraingo kontseilari eta lehen axuant izan den Edouard Plat, Eusko Alderdi Jeltzaleko hautagaia izanena da kantonamenduko bozetan.

Auzapezaren bederratzi zerrendakidek deliberratu dute beren lista muntatzea konfiantza eskasa senditu zutelakoan azken sei urteetan Pierre Hirigoienen aldetik. Hunek ez du posible izan zerrenda berririk egitea eta nahiago izan du lehia utzi. 65 urterekin bilan baikorra egiten du bereziki diru mailan, baina ez du gordetzen jelskeria nagusitu dela azkenaldian. Borondate txarreko jendea ikustez ardatzurik, ez du boz-



Adineko jendea krakada egitera elkartu zen

Otsailaren 7an, Herriko Etxeak gonbidaturik, hirugarren adineko jendea elkartu zen krakada egiteko.

Argazkia: Studio de la Nivele

katzeko agindurik emanen, ez eta orain arte bere lagun izan diren alde. Bertze bi lista ere presentatuko dira aski fite, bata Christine Bessonart-ena eta bertze abertzaleena, Pierre Iturria buru behar luke. Heldu den hilabetean xehetasun guziak emanen ditugu boz hauetaz. Bertzalde, martxoaren 11 eta 18an Iparraldean hameka kontseilari nagusi izen-

datuko dira, hauen artean Uztaritzeko kantonamenduko. Hauta biziki zabala izanena da alde guziak banaturik presentatzen direlako.

Sutea herri mindegian

Otsailaren 5 eta 6a arteko gauean, hirugarren aldikotz eta iduriz tzarkeriaz norbaitek sua piztu zuen Kamietako Borda ondoko herri mindegian. Duela 17 ur-

te landatu ziren zuhaitz eta haritz amerikano andana erre zen ezbehar huntan. Herriko Etxeak salaketa ezarri du jandarmarian, 500.000 liberako kalteak sortu direlako (12 milioi pezeta). Sua etxetik hurbil baitzen jandarmek goizeko 4,30etan atzarrri zuten Kamietako Bordako Jakes Ameztoti, lehen auzoa. Biharamunean lekuko gisa erran daukunaz, haize

gogorra baitzen egun hortan, 30 metrako garrak baziren. «Ez da konprenitzen, inpresio gogorra ematen zuen etxetik 30 metretan sua ikustea hirugarren aldikotz. Su-hiltzaileek ere lan handia izan dute eta bere burua irriskuan eman dute goizeko 7,30okarte onduan itzali baitute arras sutea» zioen Jakes Ameztoti.

Gure Irratiak frekuentzia berria

Baionako Gure Irratiak frekuentzia berria du eskualdean. FMko 106,6an gaizki entzuten dutenek 90,5an entzun dezakete euskal sintonia Sara, Senpere, Urruñia, Azkaine eta Donibane aldean.

RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209

ORDOKI ikoreak

ERRETEGIA

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

Parrilan egindako haragi eta arrainak

106.6 - 90.5 FM
GURE IRRATIA
106.6 - 90.5 FM

Gazte leiho

Senpere KONTZERTUA

Martxoaren 24. Astea
BETAGARRI

Gazte leiho

Senpere

EZKONTZAK

Francso Javier Juanotena Oizatzabal eta **Jaione Ezkurra Sarratea**, Doneztebekoak, otsailaren 3an.

JAIOTZAK

Mikel Organbide Elizagoien, Arraiozkoa, urtarrilaren 20an.
Ainhoa Irigoien Etxeberria, Elizondokoa, urtarrilaren 27an.
Iratxe Etxart Etxeberria, Erratzukoa, urtarrilaren 24ean.
Imanol Etulain Irigoien, Anizkoa, urtarrilaren 30ean.
Jon Etxalar Altzuguren, Berakoa, otsailaren 1ean.
Oaia Almandoz Garmendia, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 31n.

HERIOTZAK

Maria Antonia Astorkia Urkiola, Arizkungoa, urtarrilaren 31n, 78 urte.
Atanasio Oteiza Etxenike, Iruritaikoa, otsailaren 3an, 82 urte.
Juan Iparrea Arratxea, Iruritaikoa, otsailaren 6an, 76 urte.
Juan Felipe Maiora Inda, Iruritaikoa, otsailaren 11n, 80 urte.
Jose Luis Irurita Mitxeko, Doneztebekoak, otsailaren 12an, 77 urte.
Nikolas Olano, Sarakoa, otsailaren 2an, 95 urte.
Josefin Martinez, Sarakoa, otsailaren 7an, 85 urte.
Carmen Lukanbio Maiz, Arantzakoa, urtarrilaren 31n, 86 urte.
Felix Bakedano Altamira, Arantzakoa, urtarrilaren 30ean, 71 urte.
Dolores Mitxelena Etxeberria, Lesakakoa, otsailaren 14an, 90 urte.
Roberto Suso Dussin, Berakoa, otsailaren 1ean, 68 urte.
Antonia Goia Arrieta, Berakoa, otsailaren 3an, 94 urte.



**BAZTANDARRA
KOOPERATIBA**
Baserritarren zerbitzurat

Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375
Ordoki Auzoa • **ARIZKUN**

**PREMIAZKO
KONPONKETAK**

**IGELTSEKITA
OROKORREAN**

Tel.: 600 407 408



**ARMUA
Jatetxea**

Zugaramurdi karretara 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

Bizitza...



24 orduko zerbitzua

LOREDENA - GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilaketa • Hilaketa • Eskalak •
Dokumentazioak
Batzonak, etab...

Ita Inflex...



IRACHE TANATORIOA

Itate Monasterioa, 60
Tfn: 26 09 54

Arizondo, Bergara auzoa • Tfn: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfn: 948502200 • **NARBARTE**
Jaime Urutia 39 • Tfn: 948580668 • **ELIZONDO**

**BERABI
Agentzia**

winterthur

HELBIDE ALDAKETA

Otsailaren 19tik aitzinera
Alkaiaga industrialdeko
NISSAN BERABI tailerlean

© 948 630601 • **BERA**



**LARRALDEA
SAGARDEGIA**

Bertan egindako sagardoa
eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • **LEKAROZ**
© 948 452121

Euskal Herriko sokatira txapelketan sendo hasi dira Areso eta Beti Gazte

- 560 kiloko lehen saioan nagusi izan ziren aresoarrak eta bigarren lesakarrak
- Apirilaren 8a arte, asteburuero izanen da saioen bat

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 10ean hasi zen Leioan (Bizkaia) Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa. 560 kiloko lehen saioan, gizonetzoketan, Areso izan zen onena, tiraldi guztiak irabaziz. Nafarroako txapelketan Beti Gazteren menpe egon ziren, baina Euskal Herrikoa lortzen ahal dutela erakutsi zuten. Bigarren Beti Gazte izan zen. Lesakarrak Aresorekin galdu zuten, baina gainerako tiraldiak irabazi egin zituzten, nahiz eta Leioako Euskal Kirol Zaleakekin lan dextente egin behar izan zuten. Hirugarren Abadiño izan zen, laugarrena Euskal Kirol Zaleak eta bosgarren Altamira-Gazteak. Azken postuan berdinduak gelditu zi-



Aresoko taldeak gogor ekin dio Euskal Herriko txapelketari. Arxivokoa

ren Torrekolanda eta Auzolan-Igeldo, bertze tiraldi guztiak galdu ondotik, euren artekoan berdindu egin baitzuten.

Hemendik aitzinera, apirilaren 8a arte, aste-

buruero izanen da Euskal Herriko txapelketa-koi saiorik. Joan den asteburuan 600 kiloko lehen tiraldiak egin dira. Otsailaren 24an, 560 kiloko bigarren saioa egingen da Arrigorriagan

(Bizkaia) eta otsailaren 25ean 640ko lehendabizikoa Arronizen (Nafarroa). Martxoaren lehen asteburuan 600 kiloko bigarren saioak egingen dira Orozkon (Bizkaia) eta Betelun,

Txarutako pilotari gazteak nagusi Neguko Cajanavarra txapelketan

- Bortz finaletatik hiru irabazi egin zituzten

Otsailaren 10ean jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan Neguko Cajanavarra pilota txapelketako finalak. Bertan, Txarutako pilotariak izan ziren protagonista: Bortz finaletatik lautan bazen Baztan-Malerrekako bikoteraren bat eta horietatik hiru irabazi egin zituzten.

Tiikienetatik hasita, Txarutako Arretxea eta

Madariagak 18 eta 16 irabazi zieten Altsasuko Zabaleta eta Galartzari. Hurrengo partidari, Txarutako Gofii eta Arregik 18 eta 12 irabazi zieten Huarteko Irurita eta Yoldiri. Iruñeko Etxeberria eta Urdanizek 18 eta 15 irabazi zieten Txarutako Urtasun eta Ibarrari. Gazte mailakoa izan zen baztandarrik gabeko final bakarra. Dena den, Le-

kunberriekin ari den Oinatz Bengoetxea leitzarrak erakustaldi bikaina eskaini zuen Asizekin batera eta 18-4 irabazi zieten Altsasuko Urrestarazu eta Lagos-eri. Bengoetxeak 16 urte bertzerik ez ditu, baina dagoeneko Asegarcerekin entrenatzen ari da, Salvador Bergararen agindupean. Adituen ustez, etorkizun ederreko pilotaria

da. Zartakoe indartsuak eta intenzio handikoak ematen ditu.

Handien kategorian, azkenik, Txarutako Jaurrena eta Huartek 22 eta 11 irabazi zieten Uharte Arakileko Errea eta Beregarari. Nahiko aisa gailendu ziren baztandarrik. Gibelean sendo aritu zen Huarte eta aitzinean Jaurenak ederkil lagundu zuen eta ongi akitu zituen tantuak.



◆ **Iñaki Mihura** korrikulari arraioz-tarra txapeldun suertatu zen otsailaren 11n Laudion burututako Euskadiko kros txapelketan, junior mailan. Adin honetan, Nafarroako txapeldun ere suertatu da aurten, beraz, denboraldi ederra egin du arraioz-tarrak. Senior mailan bosgarren izan zen Barakaldo taldean ari den Rafa Maritxalar lesakarra. Barakaldo nagusi izan zen taldeka.

◆ **Urrezko Aizkora** Mikel Mindegia zubi-tarrak eta Donato Larretxea arantzarrak ezin izan zuten otsailaren 4an Azpeitiako kiroldegian Urrezko Aizkoraren finala irabazi. Nazabal eta Peñagarikano juxtu-juxtu, 9 eta 8 irabazi zuten. Eskualdeko bi aizkolariak aitzinetik izan ziren beti, baina azkeneko proban nagusi izan ziren Etxarri-Aranazkoa eta Beizamakoa.



AGENDA EGUNEZ EGUN

INAUTERIAK

LESAKA

► Otsailak 23

Kontzertua atxaspin, La Ferrereria del Son salsa taldea, arrateko 10,30etan.

► Otsailak 24

Gozte Asanbladaren Afaria Arranon.

► Otsailak 25 Zakozaharrik ilunabarrean.

BERA

► Otsailaren 22an

Ortzegun gizen, De Traka taldearekin dantzaldia, plazan.

► Otsailaren 25ean

Arratsaldeko 5etan Goloka taldearekin kalejira, eta "Sorgifak" ikuskizuna.

► Otsailaren 26an

Eztonda taldearekin dantzaldia arratsaldeko 7etatik 11etara.

MANIFESTAZIOA

IRUÑEA

► Otsailak 24

Iruñeako Golem zinemetan arratsaldeko 5,30etan, "Euskara gurzion eskubidea" lemapean. Eskualdeko udal guzietan autobusak antolatuta dituzte arratsaldeko 3,30etarako.

ZINEMA

LEITZA

► Otsailaren 23an

La Ley de Herodes, 22,30etan.

► Otsailaren 25an

La Ley de Herodes, 19,30etan.

BERA

► Martxoaren 4an

Karramarroen Uhartea. Haurrentzat zinea, arratsaldeko 5etan Kultur Etxean.

TELEBISTAKO TXOKOA



Inauteriak puri-purian

Ituren, Zubieta, Sunbilla, Igantzi eta Arantzako inauteriak pasatu dira dagoeneko, eta telebistan horren berri xuxena izan duzue, bainan asteburu honetan herri gehienetako inauteriak etorriko dira tropelean.

Horrela, gaur bertan ortzegun gizona ospatuko dute herri gehienetan, ohiko puska biltzeak eginez, eta telebistan ikusi ahal izanen duzue egunean gertatutakoa. Batez ere haurrek ospatzen duten besta berexi honen irudiak arrateko 9etako informatiboan emanen dizkizuegu.

...ETA HELDU DEN
ASTEAN KOLPE
HANDIENA

Nola ez, ortzegun gizenaren ondotik inauterietako egun nagusiak ere eskainiko dizkizuegu: Doneztebeko ikuskizun bereziak, Lesakako zakozaharrik, Berako inñude eta artziak eta Etxalarko karrozak.



BASERRIA



◆ ZERRIKIA ◆

- Zerrikumea (19 kilo): 10.000 pta.
- Zerri gizona (95-100): 214 pta./k.
- Zerramak: 115/125 pta./kiloa, bizirik.



◆ BEHIKIA ◆

- Aretze gizenak 200/250 k.
- Idixkoak/Urruxak: Pta./kg, Kanal Extra 555-565
- 1.koa 515-525
- 2.koa 465-475

- Aretze gizenak 320 kilatik goiti
- Idixkoak/Urruxak: Pta./kg, Kanal Extra 465-475
- 1.koa 425-335
- 2.koa 375-390

- Aretze tikiak (15 egun inguruak):
- Nabarrak: urruak 23.000-26.000 eta idixkoak 30.000-34.000 Pta.
- Mestizoak: urruak 20.000-22.000 eta idixkoak 34.000-34.000 Pta.

Zaldikoak:

Soruberiak: 485-495 Pta./Kg.
Zaldi eta behorak: 305-315 Pta./Kg.

Bildotsak:

6-8 kilokoa 950-1.000
8-10 kilokoa 800-850

DATUAK: NAFARRAKO GOBERNUA

DISKAK



«Negarraren amorrua»

IDI BIHOTZ

OIUKA

Heavy klasiko eta melodiazkoa tartekatzen da Idi Bihotz talde bilbotarraren azken emaitza honetan. Albaroren bateriak, Ibanen baxuak, Gorkaren gitarrak eta ahotsak eta Mikelen gitarrak eta ahots nagusiak hartzen dute parte, bertzeak bertze. Momentu zehatz batzuetan, diskoa bortzitzagoa da, aitzineko «Herriaren taupada» edo «Ariemaerratu» lanetan erakutsi zutena baino. Letrei

dagokienean, Juanjo Gascón, Lander Arrasate eta Idi Bihotzeko betiko abeslaria dugun Mikelek idatzi dituzte «Negarraren amorrua» CDan agertzen diren «Arantza odoleztatuak», «Su haziak», «Anpulu ilunak», «Gure urratsak», «Otsoen habia», «Hondarraren jauna», «Maitasun bailitzan», «Zuhaitzek negar egiten dutenekoa» «Izengabeak» eta «Munduaren zilborra».

JAKIN BEHARREKOAK

Euroaren inguruko galdemoduak

Zer dirutan egin behar dira aldizkako ordainketak, etxebizitza baten errenta adibidez?

2001eko abenduaren 31a arte, eskura ordaintzen bada soilik pezeta edo liberatan egin daiteke, baina txeki edo transferentzia bidez ordainduz gero eurotan ere egin daiteke ordaina. 2002ko otsailaren 28a bitarte eskuan ordaintzerakoan bi monetak onartuko dira, baina txeki eta transferentzietan euroak soilik. Hortik aitzinera euroa izanen da diru bakarra.

Desberdina al da Eurotan edo pezetetan aurrezteak?

Ez, berdin-berdina da. 2002ko urtarrilaren 1a arte aurrezkiak pezetetan eduki daitezke, lehenagotik espreski eurotara aldatzea eskatzen ez bada bederen. Egun horretan, ordea, automatikoki eurotara aldatuko da diru kopuru hori.

Euroaren sarrerak badu eraginik hartu dituzten maileguen gainean?

Euroaren sarrerak ez du



2002ko otsailaren 28a euroak soilik izanen du balioa.

Euroaren sarrerak ez du eraginik izanen lehenagotik hartuak ditugun maileguen balioan.

Acción euro
NAFARROAKO KUTXA

eraginik izanen hartu ditugun maileguen balioan. Kontratuaren beharregatik erregulatu ez bada, ezin dira aldatu edo bertan behera utzi soilik euroa aldaketa dela eta. Aldaketa epean (1999-2001) ordaindu ez diren maileguak pezeta edo liberatan ordaintzen segitu beharko dira. Nahi izanez gero, eta bertze kontratugilearen adostasunarekin, euroa pasatu daiteke onartutako aldaketa tiporen arabera, baina, nolabehi ere, mailegua automatikoki aldatu egingen da 2002ko urtarrilaren 1etik aitzinera.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

ELIZONDO

► Otsailaren 24ean
Arkando.

LEITZA

► Martxoaren 2an
Gaueko 11etan Ekintza taldearen kontzertua Torrea taberna.

BERTSOLARITZA

BERA

► Martxoaren 3an
Bertsotrama Korrika Kulturalaren barnean. Kultur Etxean, arratseko Betan.

IKASTAROAK

BERA

► Otsailaren 24 eta 25ean Dantza garaikide ikastaro trinkoa, Christine Burgosekin. 20.30etan Kultur Etxean.

LEHIAKETAK

ELIZONDO

► Martxoaren 3a baino lehen aurkeztu behar dira Baztandarraren Biltzarreko kartelak. Gaia hauxe izanen da: Mariano Izeta eta Baztandarraren Biltzarra. Saria 50.000 pta.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tifora. delu behar da

► Otsailaren 19tik 25era Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

► Otsailaren 26tik martxoaren 4ra Bera, Ituren, Irurita eta Goizueta.

► Martxoaren 5etik 11ra Etxalar, Narbarte, Elizondo (Izaun) eta Goizueta.

Liburuak



«Biziazaren bisutak»
Rufino IRAOLA
HIRIA

El Diario Vasco egunkariako «Denon artean» euskarazko orrialdean 1986tik 1992ra idatzitako artikuluen bilduma eskaintzen digu Rufino Iraolak «Biziazaren bisutak» liburuan. Artikuluak berndatziak izan dira, edukia berraztertzeko erabiliz. Gauza aunitzetan solasten digu beti gaitzakearen alde jartzeko joera duela aitortzen duen gizon honek alpatutako artikuluhorietan. Euskal herriko ego-

era politikoari buruzko ikuspegia. Yoyes-en heriotzat, Euskadiko Ezkerrak izandako norabideaz, euskarari buruz erlijioaz, filosofiaz, parrandaz... Hamaika kontu, azken finean, idazleak berak hitzaurrean aitortzen duenez, berari pentsarazi dioten gaiekin egingen du toporakurleak. Bere mundu ikuskera berriz, fede kontuetan zailantzarok dabilen kristau humanista balena omen da.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezeta Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Ebe konpartituak
106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikulak, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berritu dira. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

201. Hargin/geltseroak

202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak

208. Bertzelakoak

LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

HARREMANAK

801. Agurak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

BERA. Pisia salgai itzea karrikan. ☎ 948 631 022.

LESAKA. Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 333 (eguerdian eta 19etatik aitzin).

IGANTZI. Pisia garajea eta sotoa salgai. ☎ 948 637 845 (1etatik 3etara).

BERA. 79 m²ko pisu mobilizatua salgai. ☎ 948 630 943.

LEITZA. Pisu mobilizatua salgai, kalefakzioa eta garbararekin. 13.500.000 pta. ☎ 948 510 169.

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 843
☎ 948 478 678

ETXEBIZITZAK

103 ERRENTAN EMAN

BERA. Kanttonberri karrikan pisua errentan emateko. ☎ 600 767 222.

ETXEBIZITZAK

105 ETXE KONPARTITUAK

IRUÑEA. Pisia konpartituko nuke neskekin. ☎ 948 631 223.

IRUÑEA. Bi neska behar dira pisua osatzeko Iturrama auzoan. ☎ 948 176 517 eta 948 615 044.

IRUÑEA. Pertsona bat behar dugu Alde Zaharrean pisua osatzeko. Merkea. ☎ 630 484 271 (Maite, gauze).

GARAJEAK/LOKALAK

107 SALDU

LESAKA. Bittiria karrikan lur-azpiko garajea salgai. ☎ 948 637 894 (arratsalde).

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. Lokal komertziala errentan emateko lehen Banco Central Hispano zegoen tokian. ☎ 948 630 268.

SARA. 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

ZERBITZUAK

207 GARRAIOAK

Garraioak eta banaketak egiten dira enpresa zein partikularretara. Eguneroko 24 orduetan. ☎ 609 477277.

LANA

301 ESKAINTZAK

Etxalarko jatetxe batean zerbitzaria behar da aste hondarretan lan egiteko. ☎ 656 703 502.

Frantsesa dakien neska behar da sei hilabetez lan egiteko. ☎ 948 630 794.

Neska behar da Irunen etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. ☎ 943 615 839.

Sunbilla neska edo emakumea behar da etxeko lanak egin eta haurra zaintzeko. ☎ 948 451 666 (arratskeko 9etatik 11tara).

Neska edo mutila behar da Ibadinen lan egiteko, asruetan eta udan. Frantsesa dakiena. ☎ 948 630 175 edo 948 630 957.

Injineru Tekniko Industriala behar da, mekanika eta elektrizitatean aditua, produkzio sailean lan egiteko, egurrekin lan egiten duen enpresa batean. ☎ 948 451 630.

Egurrekin zerikusia duen enpresa baterako langileak behar dira produkzio katean turno desberdinean lan egiteko. Mekanika arloa ezagutzea interesgarria da. ☎ 948 451 630.

LANA

302 ESKARIAK

Trikitilariren batekin lan egiten nuke. **Panderoa ondo**

jotzen dut, abestu eta irrintziak ere bai, 16 urte ditut eta mutila naiz. ☎ 943 332 547 edo 943 550 085.

Iturgintzan eta kalefakzioan lan egiten nuke. ☎ 948 393 112.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Peugeot 406 salgai. ☎ 948 637 740 (arratsalde eta gauze) 948 631 403 (goieze).

Ford Escort TD familiarra eta Suzuki Samural 1.300 salgai. ☎ 948 630 999.

MOTORRA

502 TAILERRAK

GANIX Tailerrak

Iturbeta, 9 - ☎ 948 63069 - BERA

IBELGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 - DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi 2.5-GLS, Vectra
Caravan TD, Seat Trans D,
Itza D, Rover TD,
SUZUKI ETA YAMAHA AUKERAN

BOAN TAILERRA

CITROEN Banetzailea

AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 - BERA

DESGUACES



☎ 608 876 456 - 948 637 552
Lesaka-Igantsi errep. 2 km.

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Bi urteko bi ahari muturgorri salgai. ☎ 948 451 696 (arratskeko 9etatik aitzin).

LODITASUNA

EDAN ETA ARINDU!

Zure pisu kontrolatua
getako jantzi bizkortu gabe

☎ 948 13 11 36

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloikak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo! Delu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 948 63 11 88

Irakaskuntza publikoa

2001-2002 ikastaroa



IZENA AURRERATIK EMATEKO EPEA:
Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH
otsailaren 26tik
martxoaren 9ra bitarte

**Derrigorrezkoaren Ondoko
Bigarren Hezkuntza
maiatzaren 2tik
11ra bitarte**

**Nork bere seme-alabentzat
hautatu duen ikastetxean
eskaera bakarra aurkeztuko du, baina,
beste ikastetxe batzuk ere hautatu ahal izango
ditu lehentasun hurrenkeraren arabera.**

**Argibide zehatzagorik nahi izanez gero,
948 426 617 telefonora deitzea baduzue, edo
Hezkuntza eta Kultura Departamentura joatea.
(Santo Domingo K., z/g, Iruña)**

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de
Educación y Cultura

eskaintza oso eta kalitatezkoa, 3-18 urte

URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuko, bidali sobra zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 40 Ptako 13 seilu igorri behar duzue. Gainerakoan ez dira 779-7794 Nuzentzen eta aldizkarian agertuko. Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Ander Elizalde Karrika urteberrak osatutako 7 urte beteko du osatutako 25en. Zorionak jaione, Josemari eta garazien partetik.



Jone Olaetxea Sanz berzarrak 7 urte beteko du osatutako 25en. Zorionak jaione, Josemari eta garazien partetik.



Iñaki Larretxea aranzarrak osatutako 28an beteko du urtea. Zorionak aita, ama eta bere familiarekin partetik.



Jon Gago Lukambio surbildarrak 4 urte egin ditu osatutako 17an. Zorionak Arantzako familiarekin partetik. Aupa txapeldun!



Jon Erro Fagoaga lesikarrak osatutako 17an 4 urte beteko du. Zorionak bere ama eta atarren partetik.



Alora Ilurra-rena Bertiz berzarrak 4 urte beteko du osatutako 14an. Zorionak eta mami bat familiarekin partetik.



Iñigo Altzugarai Legazkan lesikarrak 13 urte beteko du osatutako 13an. Zorionak familiarekin partetik.



Gexan Petrirena Rozas berzarrak 3an marzokaren 3an urteak beteko du. Zorionak eta mami handi bat.



Asier Gola del Moral berzarrak 4 urte beteko du osatutako 28an. Zorionak eta mami bat familia guzaren partetik.



Iker Sein Etxeberria igortzarrak 9 urte beteko du osatutako 15en. Auziti urteak bere familia guzaren partetik.



Jokin Miltso Etxeberria igortzarrak urteak beteko du osatutako 18an. Zorionak eta mami bat familia guzaren partetik.



Haizea Etxeberria Terreros lesikarrak 3 urte beteko du osatutako 24an. Zorionak, Kaio! Zorionak.



Iñigo Altzugarai Legazkan lesikarrak 12 urte beteko du osatutako 13an. Zorionak familiarekin partetik.



Silvia Bengotxa Saguppo amaotzarrak 4 urte bete ditu osatutako 10an. Zorionak eta mami bat. Aita, ama eta Mirian lehengaina.



Estitxu Etxanika Errandona arribandarrak 7 urte bete ditu osatutako 17an. Zorionak familiarekin partetik.



Antton Astiz Izeta elizondarrak 3 urte bete ditu osatutako 3an. Auziti urteak eta mami handi bat aita, ama eta Amaier partetik.



Cesar zigarrak urteak beteko du. Zorionak eskolako lagunen partetik.



Xabier zigarrak urteak beteko du. Zorionak eskolako lagunen partetik.



Imanol Mari-ekakurrena Sansiliena aurizarrak urteak beteko du osatutako 18an. Zorionak eta mami handi bat familiarekin partetik.



Iñaki Itiki Urte edo idorri, ang! gaitzen dugu zurekin! Auziti urteak etokiko zikinen! Mami bat Senberriko familiarekin partetik.



Janire Andres Zaplana berzarrak osatutako 25an 4 urte beteko du. Zorionak eta mami bat.



Eider Pika-bea Miltzele-na berzarrak 8 urte beteko du osatutako 14an. Zorionak Estazio-ko familiarekin partetik.



Asier Sanchez Molinero urteak beteko du marzokaren 3an. Zorionak azu-arrak, ooba-oba eta lehengainen partetik.



Xabier Astiz lezarrak 2 urte bete ditu osatutako 20an. Zorionak eta mami handi bat. Iratze, ama eta atarren partetik.



Javier Sein Goñi sarrandarrak osatutako 15en 4 urte beteko du. Auziti urteak familia guzaren partetik.



Julen Dorron-soro Arotze-na donostziarrak 7 urte bete ditu osatutako 7an. Zorionak Donostziako familiarekin partetik.



Juanita Urvitia Zozala amaotzarrak urteak bete ditu osatutako 21en. Zorionak familia guzaren partetik.



Mikel Larretxea Lukambio donostziarrak 3 urte egin ditu marzokaren 3an. Zorionak Arantzako familiarekin partetik.



Izaro eta Andoni Irribarren Indabera osatutako 6 eta 2 urte beteko dute osatutako 28an eta 21en. Zorionak familiarekin partetik.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK



Zakurtxo bat galdu dugu Lesakan. ☎ 948 637 831.

Arratoi zakurra aurkitu dugu Eztegaran. ☎ 948 630 741 edo 948 630 794.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Intxaur plantak salgai. ☎ 948 510227.

Pinu Insignis landareak

salgai. ☎ 653 749 986.

Gasnategia salgai; 4 karrileko prentsa, moldeak, depositua... ☎ 657 792 552.

Egurrezko sukalde kale-faktorea salgai. Egoera onean. ☎ 609 744 757.

Kutxa erregistratzailea salgai, eskanerrarekin. ☎ 948 631 403.

70 kilo ilar beltz salgai. ☎ 948 637 704.

Bi ohe ttiki eta egurrezko sukaldea salgai. ☎ 948 631 351 eta 686 018 478.



BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

Telekomunikazioko oinarriko estazioen erabilera banatzeko prozedura arautzen duen azaroaren 27ko 1324/2000 Foru Aginduaren 3. Artikuluan jarraituz, Bera Udalerrian, Telefonica Moviles S.A.k oinarriko estazio bat jartzeko asmoa duela jendaurrean jartzen da.

Bera, 2001.02.13
ALKATEA, Josu Goia Etxeberria



BERAko UDALA

AYUNTAMIENTO DE BERA

KAXERNA KARRIKAN HERRIKO ARGIA JARTZEA

- **Kontratuaren xedea:** Kaxerna karrikan herriko argiak jartzeko obrak.
- **Esklepen modua:** Prentsa iragaritako prozedura negoziatua.
- **Kontrata aurrekontua:** 5.205.049 Pta. / 31.282,97 euro (BEZ barne).
- **Proposamenak aurkeztea:** Iragarri hau egunkaritan argitaratu eman eta ondoko 15. eguna arte. Orduak: 9:00etatik 13:00etara. Azken eguna larunbata suertatzen bada, astelehenaraino luzatuko da.
- **Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea:** Proposamenak aurkezteko epea bukatu eta ondoko 5. egunean. Egun hau larunbata suertatzen bada, hurrengo astelehenan irekiko dira. Ordua: 14:30.

Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratiboaren plugua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura Udala bulegoetan izanen dira.

Bera, 2001.02.13
ALKATEA, Josu Goia Etxeberria

SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa



cpelizon@pnte.cfnavarra.es

• ELIZONDO •

☎ eta Faxa: 948 581 808

Matrikulatzeko epea: Otsailaren 21etik martxoaren 9ra

ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!

BAZTAN IKASTOLA Udal Eskola Publikoa

FOTO MENA



BAZTAN BALLEKO UDALA

ESKUARAZ BIZI ETA IKASI

Aurreinskripzioa: Otsailaren 21etik martxoaren 9ra

☎ 948 452 448
baztan@ikastola.net

**Nekazariak
eta abeltzainak**



**P.A.C.
laguntzetarako
eskaera**

**Gestore espezializatuen
aholkularitzarekin.
Bidera itzazu gure bulegoetan.**

Nafarroako Gobernuaren laguntzaz

CAJA  NAVARRA